

## GRADU AMAIERAKO LANA

### **Indaux S.Aren analisia eta auditoretza**

EGILEA: Nerea Urresti Agirrezabalaga

ZUZENDARIA: Itziar Azkue Irigoyen

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua  
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)

2022/2023 Ikasturtea

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA ETA METODOLOGIA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. INDAUX S.AREN AURKEZPENA.....</b>	<b>2</b>
2.1 HISTORIA ETA BILAKAERA.....	2
2.2 INDAUX TALDEAREN OSAERA.....	3
2.3 INDAUX MUNDU MAILAN.....	4
2.4 KONTUEN AUDITORETZA EGITEKO BEHARRA.....	5
<b>3. INDAUX S.A-REN ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOA AUDITORETZA PLANGINTZA BURUTZEKO.....</b>	<b>6</b>
3.1 BALANTZEA.....	6
3.2 GALDU-IRABAZIEN KONTUA.....	13
3.3 ERROTazio FONDOA.....	17
3.4 KAUDIMEN FINANTZARIOAREN ANALISA.....	19
3.5 ERRENTAGARRITASUNA.....	21
3.6 ADITORETZA BURUTZEKO ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOTIK ATERATAKO ONDORIOAK.....	25
<b>4. AUDITORETZA PROZESUA.....</b>	<b>26</b>
4.1 AUDITORETZA BULEGOA ETA LANAREN BANAKETA.....	26
4.1.1 AUDITORETZA BULEGOA: LAN TALDEA.....	26
4.1.2 AUDITORETZA LANAREN BANAKETA: TALDE ARDURADUNA, ORDUAK ETA AUDITORETZAREN AURREKONTUA.....	28
4.2. AUDITORETZAREN MANDATU AKORDIOA ETA ONARPENA.....	29
4.3. BARNE-KONTROL SISTEMAREN AZTERKETA ETA KOMUNIKAZIOA.....	30
4.4. AUDITORETZAREN ARRISKUAK.....	34
4.5. EGIN BEHARREKO AUDITORETZA PROBAK ETA EBIDENTZIA.....	36
4.5.1 IZAKINEN EREMUA.....	37
4.5.1.1 IZAKINEN EREMUAN EGINDAKO AUDITORETZA PROBAK.....	38
4.5.2 DIRUZAINNTZA EREMUA.....	41
4.5.2.1 BANKU BERDINKATZEA.....	45
4.5.3 BEZEROEN EREMUA.....	47
4.5.4 ONDARE GARBIAREN EREMUA.....	51
<b>5.AITORPEN GUTUNA ETA AUDITORETZA TXOSTENA.....</b>	<b>52</b>
5.1 AITORPEN GUTUNA.....	52
5.2 AUDITORETZA TXOSTENA.....	53
<b>6.ONDORIOAK.....</b>	<b>54</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>55</b>
I.ERANSKINA: MANDATU-AKORDIO EDO AGINDU GUTUNA.....	58
II. ERANSKINA: AUDITOREAREN INDEPENDENTZIAREN AITORPEN GUTUNA.....	60
III.ERANSKINA: BANKU ZIRKULARIZAZIOA.....	62
IV. ERANSKINA: BEZEROEN ZIRKULARIZAZIOA.....	63
V.ERANSKINA: AUDITOREAK PROPOSATUTAKO IDAZPENAK.....	67
VI.ERANSKINA: AUDITOREAK PROPOSATUTAKO IDAZPENEN LABURPENA.....	68
VII.ERANSKINA: 2021EKO EKITALDIAREN BALANTZE DOITUA.....	69
VIII.ERANSKINA: AITORPEN GUTUNA.....	71

**IRUDI ETA TAULEN AURKIBIDEA**

1. IRUDIA: Indaux S.A mundu mailan.....	5
2.TAULA: Auditoretza egiteko sozietateak bete beharreko baldintzak.....	6
3.TAULA: Indaux S.Aren aktibo ez-korrontea.....	9
4.TAULA: Indaux S.Aren aktibo korrontea.....	10
5.TAULA: Indaux S.Aren pasiboa eta Ondare Garbia.....	11
6.TAULA: Indaux S.Aren galdu-irabazien kontua.....	15
7.TAULA: Indaux S.Aren galdu-irabazien kontua.....	16
8.TAULA: Errotazio Fondoaren kalkulua.....	18
9.TAULA: Errotazio Fondoaren osaera.....	18
10.TAULA: Kaudimen ratioak.....	20
11.TAULA: Politika fiskalaren kalkulua.....	22
12.TAULA: Errentagarritasun ekonomikoaren kalkulua.....	23
13.TAULA: Errentagarritasun finantzaioaren eta apalankamendu finantzarioaren kalkulua.....	24
14.TAULA: Auditoretza taldeko kideak.....	27
15.TAULA: auditoretzaren aurrekontua.....	29
16.TAULA: Izakinen banaketa.....	37
17.TAULA: Diruzaintzaren banaketa.....	41
18.TAULA: Banku sukurtsal bakoitzaren saldoa.....	42
19.TAULA: Bezeroen banaketa.....	47
20.TAULA: Bezeroen arteko diferentzia.....	48
21.TAULA: Bezeroaren mugimenduak.....	48
22.TAULA: Ondare Garbiaren banaketa.....	51
23.TAULA: Erreserben banaketa.....	51

## **SIGLAK**

S.A → Sozietate Anonimoa

E.M.S → Erantzukizun Mugatuko Sozietatea

LAC → Ley de Auditoría de Cuentas (Kontu Auditoretzaren Legea)

LSC → Ley de Sociedades de Capital (Kapital Sozietateen Legea)

NIA → Normas Internacionales de Auditoría (Auditoretzako Nazioarteko Arauak)

I+G → Ikerketa eta Garapena

NZZG → Negozio Zifraren Zenbateko Garbia

ROI → Return On Investment (Errentagarritasun ekonomikoa)

BAI → Beneficio Antes del Impuesto

BAIT → Beneficio Antes de Intereses e Impuestos

A → Aktiboa

ROE → Return On Equity (Errentagarritasun finantzarioa)

ICAC → Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas (Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutua)

Idazp. → Idazpena

E/A → Enpresaren Arabera

A/A → Auditorearen Arabera

Zk → Zenbakia

G-I → Galdu-irabaziak

ROAC → Registro Oficial de Auditores de Cuentas (Kontu Auditoreen Erregistro Ofiziala)

## **1. SARRERA ETA METODOLOGIA**

Gradu Amaierako Lan honen bidez, Indaux S.A erakundearen 2019, 2020 eta 2021 urteetako kontuen analisi ekonomiko-finantzarioa egingo da, aurrerago, 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren plangintza, exekuzioa eta auditoretza txostena egiteko. Horregatik, hiru urte horietan enpresak izan duen bilakaera azaldu eta emandako gertaeren analisi sakona egingo da. Beraz, Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia, analisi ekonomiko-finantzario horretatik ateratako ondorioetan oinarrituta, 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren urteko kontuen auditoretza egitea da, baita Indaux S.Aren, auditoretza prozesua eta auditorearen lana ezagutzea ere.

Hasieran, Indaux S.Aren informazio orokorra azalduko da, sozietatearen historia eta bilakaera azalduz. Horrez gain, Indaux taldearen osaeraren berri ere emango da. Jarraian, enpresaren analisi ekonomiko-finantzarioa burutuko da eta, horretarako, urteko kontuetatik ateratako informazioa erabiliko da. Portzentai bertikal, zenbaki indize edo ratioen bidez lortutako datuekin erakundearen inguruko ondorioak aterako dira.

Amaieran, Indaux S.Aren auditoretza egingo da. Urteko kontuen auditoretza Gayca Auditores E.M.Sk egingo du. Errealitatean, Indaux S.Aren auditoretza, bulego horrek burutu du eta, horregatik, bere izena hartu da eredutzat. Baina Gradu Amairako Lan honetan azaltzen diren Gayca Auditores E.M.Sri buruzko datu guztiak asmatutakoak dira. Auditoretza txostena egiteko beharrezkoa da enpresak emandako informazio izatea, horregatik, lanean zehar agertzen diren tauletan eta eranskinetan informazio hori bilduko da. Bestalde, auditoretza lana Espainian indarrean dagoen arauaren arabera egingo da.

Asko dira Gradu Amaierako Lan honetarako gai hau hautatzearen arrazoiak. Hasteko, enpresa hau aukeratzearen arrazoi nagusia gertutasuna izan da. Getariarra izanik betidanik jakin izan dut Indaux S.Ak duen garrantzia eta indarra eta, horrek, enpresa hau aztertze eta horrelako lan bat burutzeko gogoia piztu dit. Bestalde, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduan irakasgai asko izan ditugun arren, kontu auditoretzak hasierako momentutik interesa sortu izan dit, beraz, kontu auditoreek egiten dituzten zereginak ikasteko gogoak eraman dit lan hau burutzera.

Gradu Amaierako Lan hau burutzeko behar izan ditudan urteko kontuak Gipuzkoako Merkataritza Erregistrotik lortu ditut. Horrez gain, auditoretza egiteko zenbait arau hartu behar izan ditut kontuan: LAC (Kontu Auditoretzaren Legea), LSC (Kapital Sozietateen Legea) eta NIA-ES (Auditoretzako Nazioarteko Arauak).

## **2. INDAUX S.AREN AURKEZPENA**

Atal honetan, Gradu Amaierako lan honen objektu eta ardatz den Indaux S.A enpresaren aurkezpena egingo da.

### **2.1 HISTORIA ETA BILAKAERA**

1962an automoziorako lantegi txiki gisa sortu zen Indaux, Industrias Auxiliares izenarekin, gerora, altzarigintzarako osagaien fabrikazioan espezializatu zena. Hasiera batean, torlojugintza eta sarrailgintzarekin hasi zen lanean, ordutik dator oraindik ere erabiltzen den sarraila itxurako Indauxen logotipoa. Gaur egun, altzarietarako burdineria sistemak diseinatu, garatu, fabrikatu eta merkaturatzen dituen Espainiako enpresa garrantzitsua da.

1965ean altzarigintzarako lehenengo burdinkia sortu zuen eta, bisagra horien bidez, atek, leihoak edo altzarien panelak biratzea lortu. Indauxek Getarian izan du bere egoitza nagusia sortu zen momentutik. 1970.urtean, bere egoitza, herrian bertan zegoen beste eraikin handiago batera lekualdatzea erabaki zuen. Eraikuntza berrian jarri ziren lehen aldiz abian “Gacela” izeneko irristailuak. Bost urteren baitan, hiru ekoizpen planta berri zabaldu zituen: LEIN, torlojuak eta tirafondoak fabrikatuko dituen; ERNAI, armairuko barrak egingo dituen; eta ITB, bisagrak diseinatu eta egingo dituenak. I+G saila, produktu berriak diseinatuko dituen, eta esportazio saila ere urte hauen baitan sortu ziren.

80.hamarkadarekin batera, Indaux S.Ak, dibertsifikatzeaz gain, produktu linea berri bat asmatu zuen. “Combi” tiradera berriarekin plastikozko lehengo tiradera lortu zuen. Egungo gontza linearen jatorria ere hamarkada horretakoa da, “Mesuco” izeneko gontza familia 1989. urtean sortu baitzen.

Hamarkada berrian sartzera, Herdesa izeneko produkzioarako instalazio berria zabaldu zuen Zaragozan, “Gacela” irristailuak eta “Supra” tiraderak fabrikatzeko. 1994an egoitza nagusia gaur egungo kokalekura aldatu zuen, Getariako San Prudentzio auzora, alegia. Handik hiru urtera, Getarian bertan, Cajones Metalicos E.M.S izeneko planta berri bat inauguratu zuen “Europa”, “Supraplex”, “Suprakit” eta “Offibox” izeneko tiraderak fabrikatzeko.

2000. urtearekin batera, “Attraction” izeneko tiradera merkaturatu zuen, horma bikoitzeko lehenengo metalezko tiradera izan zena. Etorkizuneko garapenen oinarria finkatzeko auto-itxiera hidrauliko moteldua izeneko teknologia berria jarri zuen abian. 2007an “Clock 35 Eszentrikoa”

merkaturatu zuen, aupegi bikoitz kiribilarekin, taula eta langan arteko erresistentzia handiko loturaren merkaturatu irauliz. Hiru urte beranduago, “Ariane” tiradera sortu zuen, pareta bikoitza eta korredera sinkronizatuko dituen tiradera. Gerora, Mumbaien, Indaux India eta, Ameriketako Estatu Batuetan, Indaux USA ordezkariak zabaldu zituen. Horien bidez, altzarien industriarako osagarri eta soluzioetan edozein transakzio merkaturatzea, saltzea, inportatzea, esportatzea edo garatzea lortu zuen.

## 2.2 INDAUX TALDEAREN OSAERA

Lehen aipatu bezala, Industrias Auxiliares S.A 1962.urtean sortu zen. 2005ean, Industrias Auxiliares S.A eta Industrias Tecnicas de la Bisagra S.A sozietateetako bazkideek, ezohiko batzar unibertsalaren eta xurgapen bidezko sistemaren bidez, bi sozietate hauen bat egitea adostu zuten. Horren ondorioz, Industrias Tecnicas de la Bisagra S.Aren ondare guztia Industrias Auxiliares S.Aren esku geratu zen eta erakundearen eskubide eta betebeharrak guztiak bere gain hartuz.

Asedir Gestion E.M.S da Industrias Auxiliares S.Aren akziodun bakarra, hau da, bera da akzio guztien titularra. 2008an Asedir Gestion E.M.Sk, Cajones Metalicos E.M.S eta Industrias Lein E.M.S sozietateen xurgapena burutzea erabaki zuen sozietate xurgatzailea Industrias Auxiliaren S.A izanik.

Industrias Auxiliaren S.A beste hainbat sozietaterekin batera Asedir Gestión y Sociedades Dependientes taldekoa da. Jarraian dagoen taulak Asedir taldearen osaera azaltzen du:

1.TAULA: Asedir taldearen osaera.

### Sociedad Dominante:

Sociedad	Domicilio	Actividad
Asedir Gestión, S.L.	Getaria - Gipuzkoa	(A)

### Resto de Sociedades:

Sociedad	Domicilio	Actividad
Industrias Auxiliares, S.A.U.	Getaria - Gipuzkoa	(B)
Artadi Alimentación, S.L.	Zumaja - Gipuzkoa	(C)
Herdesa, S.L.U.	Sadaba- Zaragoza	(D)
Playa Gaztetape, S.L.U.	Getaria - Gipuzkoa	(E)
Urkabe Benetan, S.A.	Errerterria - Gipuzkoa	(F)
DCA Okin, S.L.U.	Madrid	(G)
Okin France	Francia	(G)
Indaux India PVT. LTD	India	(H)
Indaux USA	EE. UU.	(H)

(Iturria: Indaux S.Aren Urteko Kontuak)

Asedir Gestion y Sociedades Dependientes taldeko erakunde nagusia Asedir Gestion E.M.S da. Sozietate horren objektu soziala industriarako eta merkataritzarako era guztietako artikulua merkaturatzen dituzten sozietateak eratzea, harpidetzea, eskuratzea, eskualdatzea eta kudeatzea da.

Industrias Auxiliaren S.A ere talde horretako partaidea da. Indaux multzo horretako partaidea izateaz gain, beste enpresa talde bateko kidea ere bada, eta hori, Indaux taldea da. Indaux taldea, burdin, elikagai eta eraikuntza sektoreetako hiru erakundek osatzen dute:

- Indaux: altzarigintzarako burdineria eta bestelako sistemak diseinatu, garatu, fabrikatu eta saltzen ditu.
- Gourmet Okin: elikadura sektoreko talde gisa sortu zen 2006. urtean eta bi sozietate ezberdinek osatzen dute.
  - Okin: 1994. urtetik euskal kostaldean dagoen sozietatea da, Zumaian kokatua, alegia. Ogia edo opilak ekoiztu, fabrikatu eta saltzen ditu.
  - Urkabe Benetan: era guztietako hestebeteak eta, izoztutako, sukaldatutako eta aurrez prestatutako jakiak ekoiztu, elaboratu eta saltzen ditu eta Erreterian kokatzen da. Hasiera batean, bi sozietate ezberdin ziren. Urkabe 1982an sortu zen eta metodo tradizionalen bidez egositako urdaiazpikoa fabrikatzen zituen. Benetan enpresa berriz, 1960. urtean sortu zen eta aurrez prestatutako jakiekin egiten zuen lan. 2005ean bi erakunde hauen arteko fusioa eman zen eta, xurgapen sistemaren bidez, Urkabek, Benetan sozietatea bere gain hartu zuen.
- Gaztetape eraikuntzak: 1999an sortu zen Getarian eta mota guztietako lurren salerosketak, errentamenduak eta ustiapenak egiten ditu.

### **2.3 INDAUX MUNDU MAILAN**

Indaux mundu mailako burdineria sektoreko erreferentia da. 70 herrialdeetan du presentzia eta 2.000 bezerotik gora ditu munduan zehar banatuta. Merkataritza erakundeak banatzaile sare bat du 30 estatu baino gehiagotan eta, horrek, Indauxen produktuak bost kontinenteetan zehar banatuta egotea bermatzen du.



Gaur egun, merkatu berrietan nazioarteko hedapena bilatzen ari da. Horietako herrialde batzuk honako hauek dira: Ekialde Hurbila, Asia, Pazifikoko eremua...

### 1. IRUDIA: Indaux S.A mundu mailan



Iturria: [indaux.com](http://indaux.com) web orrialdetik ateratako irudia

## 2.4 KONTUEN AUDITORETZA EGITEKO BEHARRA

LAC-2015<sup>1</sup> arauen arabera, Indaux S.Ak bere urteko kontuen auditoretza egin behar du, kasu honetan, 2021eko abenduaren 31an itxitako ekitaldiarena. Bi arrazoiek behartzen dute Indaux S.A auditoretza txostena egitera. Alde batetik, bere jardueran negoziatzeko onartutako baloreak jaulkitzen ditu. Bestetik, balantzean eta emaitzen kontuan tamainaren hiru baldintzetatik guztiak betetzen dituela ikus daiteke, bai 2020.urtean eta, baita 2021ean ere. Legeak dionaren arabera, sozietate batek urteko kontuen auditoretza egin behar du, bi ekitalditan jarraian arauak azaltzen dituen hiru baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen baditu: 5,7 milioi eurotik gorako fakturazioa izatea, aktiboak guztira 2,8 milioi eurotik gorakoa izatea eta ekitaldian zehar batez beste 50 langile baino gehiago izatea. Hurrengo taula honetan, Indauxek bi ekitalditan hiru baldintza horiek betetzen dituela ikus daiteke:

<sup>1</sup> LAC-2015: Ley 22/2015, de 20 de julio, de Auditoría de Cuentas

## 2.TAULA: Auditoretza egiteko sozietateak bete beharreko baldintzak

	2021	2020
NZZG	60.771.712,79 >5.700.000	48.402.356,68 >5.700.000
Aktiboa guztira	63.576.124,15 >2.850.000	61.176.077,15 >2.850.000
Langile kopurua	230>50	244>50

Iturria: Norberak egina, LAC 2015 legeak dionaren arabera

### **3. INDAUX S.A-REN ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOA AUDITORETZA PLANGINTZA BURUTZEKO**

Indaux S.Aren analisi ekonomiko-finantzarioa garrantzitsua da, batez ere, auditoretzari begira sakondu beharreko arloak identifikatzeko. Oinarrizko urtea 2019a izango da eta 2020 eta 2021 urteetako datuak hasierako datu horiekin alderatuko dira. Lehenik eta behin, balantzea aztertuko da, jarraian galdu-irabazien kontua, errotazio fondoa, kaudimen finantzarioa eta, baita errentagarritasuna ere. Atal honen amaieran, auditoretza burutzeko analisi ekonomiko-finantzariotik ateratako ondorioak bilduko dira.

#### **3.1 BALANTZEA**

Balantzea aktiboak, pasiboak eta ondare garbiak osatzen dute. Hiru urteetan izandako aldaketak eta enpresak izan duen bilakaeraren arabeko datuak eta ondorioak hiru egitura horiei erreparatuta lortuko dira. Azterketa burutzeko balio absolutuak, erlatiboak eta zenbaki indizeak erabiliko dira. Balio erlatiboak, aldagai bakoitzak emaitza totalarekin alderatuta duen pisua adierazten du eta, zenbaki indizeak, berriz, aldagai bakoitzak urte batetik bestera izandako bilakaera.

**AKTIBOA:** Enpresak etorkizun batean mozkin ekonomikoa lortzeko helburuarekin ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasun eta eskubideak dira. Aktiboak enpresan iraungo duenaren arabera bi taldetan banatzen da: aktibo ez-korrontea eta aktibo korrontea. Aktibo ez-korrontean enpresan urtebete baino gehiago irauten duten elementu eta finantza inbertsioak agertuko dira eta, aktibo korrontean berriz, urtebete baino gutxiagoko iraupena dutenak eta ekitaldi ekonomiko berean etengabe berritzen direnak.

Azterketarekin hasteko, balio erlatiboak erreparatuko zaie. Indauxen inbertsio nagusiak epe laburrekoak dira. Oinarrizko urtearekin hasita, aktibo korronteari aktibo osoaren % 61,38

dagokio eta, bertan, izakinak nabarmentzen dira. Aipatzekoak dira baita zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak eta taldeko enpresetako eta elkartuetako epe laburreko inbertsioak ere. Epe luzeko inbertsioei dagokienez, ibilgetu materiala da talde garrantzitsuena % 26,59ko portzentailarekin, eta horren barruan, instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak dira azpitalde nagusienak % 17,53arekin. Hurrengo bi urteetan, 2020 eta 2021 urteetan alegia, egiturak berdina izaten jarraitzen du, epe laburreko inbertsioak izanik garrantzitsuenak.

Zenbaki indizeei erreparatuz aktibo osoa pixkanaka haziz doa urtetik urtera. Oinarrizko urtearekin alderatuta, 2020an aktiboak izandako bataz besteko hazkunde oso txikia izan da, % 0,15eko alegia, eta 2021 urtean, aktiboa guztira % 4an hazi da. Lehen aipatu bezala, egiturak berdina izaten jarraitzen du eta epe laburreko inbertsioak nagusitzen dira.

Aktibo korronteak joera gorakorra du, 2020an % 5,66 haziz eta 2021an % 17,63. 2020 urteari dagokionez, epe laburreko inbertsioen hazkundearen eragile nagusiak bi izan dira, izakinak eta eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak. Izakinek orokorrean jetsiera izan duten arren, talde horren barruan dauden hornitzaileei aurrerakinak ikaragarritzko igoera izan dute eta horiek %7632 ko portzentailan hazi. Diruzaintzak ere hazkundera izan du, % 297,20ko igoera alegia. 2021. urtean zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak, oinarrizko urtearekin alderatuta, %15,53ko portzentailan egin dute gora. Talde horren barruan batez ere salmentagatik eta zerbitzu emateagatik bezeroak izandako igoera nagusitu da, horiek % 21,19ko hazkundera izanik. Bestalde, eskudiruak eta bestelako aktibo baliokideak ere asko hazi da, diruzaintzak % 453,84ko hazkundera izanik.

2019 urtea oinarrizko urtetzat hartuta, hurrengo bi urteetan aktibo ez-korronteak izandako joera beherakorra da. 2020. urtean epe luzeko inbertsioak % 8,62ko portzentailan murriztu dira eta 2021ean, berriz, % 17,47an. 2020ean epe luzeko inbertsioak murriztearen eragile nagusia ibilgetu materiala izan da eta, talde horren barruan, bideango ibilgetua eta aurrerakinak izan dira jaitsiera handiena izan dutenak, % 78,75eko jaitsiera, alegia. 2021. urteari dagokionez, ibilgetu materialak % 20,82ko murrizketa izan du eta, horren eragile nagusia, batez ere, bideango ibilgetua eta aurrerakinak izan duten beherakada izan da, lurrak eta eraikuntzak eta instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak ere beherakada izan dute. Aipatzekoa da ibilgetu ukiezinak izan duen beherakada ere, % 53,39koa, alegia.

Beraz, esan daiteke Indauxen aktibo nagusiak epe laburrekoak direla eta horren barnean izakinak nagusitzen direla. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuetako bezeroek garrantzitsuak dira sozietatearen aktiboan eta baita bestelako aktibo finantzarioak ere. Jarraian, 3,4, eta 5 tauletan, Indaux S.Aren balantzearen zati ezberdinak agertzen dira.

### 3.TAULA: Indaux S.Aren aktibo ez-korrontea

	2021			2020			2019		
	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>19.469.016,37</b>	<b>30,62%</b>	<b>82,53%</b>	<b>21.555.155,21</b>	<b>35,23%</b>	<b>91,38%</b>	<b>23.589.209,73</b>	<b>38,62%</b>	<b>100,00%</b>
<b>1.Ibilgetu ukiezina</b>	<b>450.696,06</b>	<b>0,71%</b>	<b>46,61%</b>	<b>699.632,81</b>	<b>1,14%</b>	<b>72,35%</b>	<b>967.050,09</b>	<b>1,58%</b>	<b>100,00%</b>
- Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	28.930,63	0,05%	53,85%	41.329,47	0,07%	76,92%	53.728,31	0,09%	100,00%
- Aplikazio informatikoak	386.217,81	0,61%	46,09%	627.185,16	1,03%	74,85%	837.943,10	1,37%	100,00%
- Bestelako ibilgetu ukiezina	35.547,62	0,06%	47,16%	31.118,18	0,05%	41,28%	75.378,68	0,12%	100,00%
<b>2.Ibilgetu materiala</b>	<b>12.861.204,64</b>	<b>20,23%</b>	<b>79,18%</b>	<b>14.273.301,69</b>	<b>23,33%</b>	<b>87,87%</b>	<b>16.244.005,63</b>	<b>26,59%</b>	<b>100,00%</b>
- Lurrak eta eraikuntzak	3.024.504,68	4,76%	81,19%	3.375.804,53	5,52%	90,62%	3.725.404,66	6,10%	100,00%
- Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak	9.317.291,13	14,66%	87,01%	10.512.712,59	17,18%	98,18%	10.707.727,43	17,53%	100,00%
- Bideango ibilgetua eta aurrerakinak	519.408,83	0,82%	28,68%	384.784,57	0,63%	21,25%	1.810.873,54	2,96%	100,00%
<b>4.Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak</b>	<b>678.461,84</b>	<b>1,07%</b>	<b>88,00%</b>	<b>953.452,77</b>	<b>1,56%</b>	<b>123,66%</b>	<b>771.009,27</b>	<b>1,26%</b>	<b>100,00%</b>
- Ondare tresnak	332.793,66	0,52%	53,72%	619.486,39	1,01%	100,00%	619.486,39	1,01%	100,00%
- Enpresei kredituak	345.668,18	0,54%	228,13%	333.966,38	0,55%	220,41%	151.522,88	0,25%	100,00%
<b>5. Epe luzeko finantza inbertsioak</b>	<b>74.197,30</b>	<b>0,12%</b>	<b>77,38%</b>	<b>95.884,57</b>	<b>0,16%</b>	<b>100,00%</b>	<b>95.884,57</b>	<b>0,16%</b>	<b>100,00%</b>
- Ondare tresnak	2.739,80	0,00%	100,00%	2.739,80	0,00%	100,00%	2.739,80	0,00%	100,00%
- Bestelako aktibo finantzarioak	71.457,50	0,11%	76,72%	93.144,77	0,15%	100,00%	93.144,77	0,15%	100,00%
<b>6.Zerga geroratuen aktiboak</b>	<b>5.404.456,53</b>	<b>8,50%</b>	<b>98,06%</b>	<b>5.532.883,37</b>	<b>9,04%</b>	<b>100,39%</b>	<b>5.511.260,17</b>	<b>9,02%</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

#### 4.TAULA: Indaux S.Aren aktibo korrontea

<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>44.107.107,78</b>	<b>69,38%</b>	<b>117,63%</b>	<b>39.620.921,94</b>	<b>64,77%</b>	<b>105,66%</b>	<b>37.497.950,69</b>	<b>61,38%</b>	<b>100,00%</b>
<b>2.Izakinak</b>	<b>14.668.094,02</b>	<b>23,07%</b>	<b>100,69%</b>	<b>12.866.602,60</b>	<b>21,03%</b>	<b>88,33%</b>	<b>14.567.153,82</b>	<b>23,85%</b>	<b>100,00%</b>
- Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	2.419.000,36	3,80%	122,40%	1.677.275,76	2,74%	84,87%	1.976.339,05	3,24%	100,00%
- Bideango produktuak	5.889.443,17	9,26%	134,82%	4.544.752,14	7,43%	104,03%	4.368.516,13	7,15%	100,00%
- Produktu bukatuak	6.359.075,78	10,00%	77,34%	6.600.712,76	10,79%	80,28%	8.221.723,93	13,46%	100,00%
- Hornitzaileei aurrerakinak	574,71	0,00%	100,00%	43.861,94	0,07%	7632,01%	574,71	0,00%	100,00%
<b>3.Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>13.786.930,01</b>	<b>21,69%</b>	<b>115,53%</b>	<b>12.715.328,66</b>	<b>20,78%</b>	<b>106,55%</b>	<b>11.933.931,19</b>	<b>19,54%</b>	<b>100,00%</b>
- Bezeroak, salmentagatik eta zerbitzu-emateengatik	9.559.711,54	15,04%	121,19%	9.565.904,75	15,64%	121,27%	7.888.340,19	12,91%	100,00%
- Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	3.751.740,93	5,90%	102,58%	2.825.955,40	4,62%	77,27%	3.657.473,31	5,99%	100,00%
- Hainbat zordun	1.761,69	0,00%	4,22%	687,50	0,00%	1,65%	41.736,55	0,07%	100,00%
- Pertsonala				1.400,00					
- Administrazio Publikoekiko bestelako hartzeak	473.715,85	0,75%	136,76%	321.381,01	0,53%	92,78%	346.381,14	0,57%	100,00%
<b>4.Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe laburreko inbertsioak</b>	<b>8.176.711,74</b>	<b>12,86%</b>	<b>88,74%</b>	<b>9.095.124,60</b>	<b>14,87%</b>	<b>98,70%</b>	<b>9.214.558,17</b>	<b>15,08%</b>	<b>100,00%</b>
- Enpresei kredituak	10.657,52	0,02%	0,70%	652.718,00	1,07%	42,63%	1.531.126,52	2,51%	100,00%
- Bestelako aktibo finantzarioak	8.166.054,22	12,84%	106,28%	8.442.406,60	13,80%	109,88%	7.683.431,65	12,58%	100,00%
<b>5.Epe laburreko finantza inbertsioak</b>	<b>717,34</b>	<b>0,00%</b>	<b>3,53%</b>	<b>717,34</b>	<b>0,00%</b>	<b>3,53%</b>	<b>20.313,21</b>	<b>0,03%</b>	<b>100,00%</b>
- Ondare tresnak	117,34	0,00%	0,60%	117,34	0,00%	0,60%	19.713,21	0,03%	100,00%
- Bestelako aktibo finantzarioak	600,00	0,00%	100,00%	600,00	0,00%	100,00%	600,00	0,00%	100,00%
<b>6. Epe laburreko aldizkapenak</b>	<b>111.143,08</b>	<b>0,17%</b>	<b>79,68%</b>	<b>121.140,38</b>	<b>0,20%</b>	<b>86,84%</b>	<b>139.491,09</b>	<b>0,23%</b>	<b>100,00%</b>
<b>7.Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>7.363.511,59</b>	<b>11,58%</b>	<b>453,84%</b>	<b>4.822.008,36</b>	<b>7,88%</b>	<b>297,20%</b>	<b>1.622.503,21</b>	<b>2,66%</b>	<b>100,00%</b>
- Diruzaintza	7.363.511,59	11,58%	453,84%	4.822.008,36	7,88%	297,20%	1.622.503,21	2,66%	100,00%
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>63.576.124,15</b>	<b>100,00%</b>	<b>104,07%</b>	<b>61.176.077,15</b>	<b>100,00%</b>	<b>100,15%</b>	<b>61.087.160,42</b>	<b>100,00%</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

5.TAULA: Indaux S.Aren pasiboa eta Ondare Garbia

	2021			2020			2019		
	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Balio erlatiboak	Zenbaki indizeak
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>38.091.518,18</b>	<b>59,91%</b>	<b>106,51%</b>	<b>37.532.590,85</b>	<b>61,35%</b>	<b>104,95%</b>	<b>35.762.928,06</b>	<b>58,54%</b>	<b>100,00%</b>
<b>A-1) Fondo propioak</b>	<b>38.030.058,33</b>	<b>59,82%</b>	<b>106,64%</b>	<b>37.452.188,11</b>	<b>61,22%</b>	<b>105,02%</b>	<b>35.662.866,11</b>	<b>58,38%</b>	<b>100,00%</b>
- Kapitala	1.334.220,00	2,10%	100,00%	1.334.220,00	2,18%	100,00%	1.334.220,00	2,18%	100,00%
- Erreserbak	34.617.968,11	54,45%	94,83%	34.328.646,11	56,11%	94,04%	36.503.876,70	59,76%	100,00%
- Bazkideen bestelako ekarpenak	1.500.000,00	2,36%		1.500.000,00	2,45%				
- Ekitaldiko emaitza	577.870,22	0,91%	-26,57%	289.322,00	0,47%	-13,30%	-2.175.230,59	-3,56%	100,00%
<b>A-3) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>61.459,85</b>	<b>0,10%</b>	<b>61,42%</b>	<b>80.402,74</b>	<b>0,13%</b>	<b>80,35%</b>	<b>100.061,95</b>	<b>0,16%</b>	<b>100,00%</b>
<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>10.128.029,99</b>	<b>15,93%</b>	<b>128,25%</b>	<b>11.877.472,27</b>	<b>19,42%</b>	<b>150,41%</b>	<b>7.896.812,01</b>	<b>12,93%</b>	<b>100,00%</b>
<b>2.Epe luzeko zorrak</b>	<b>10.108.621,59</b>	<b>15,90%</b>	<b>128,52%</b>	<b>11.852.081,90</b>	<b>19,37%</b>	<b>150,69%</b>	<b>7.865.213,47</b>	<b>12,88%</b>	<b>100,00%</b>
- Kreditu erakundeakiko zorrak	6.931.006,59	10,90%	130,09%	7.909.867,49	12,93%	148,47%	5.327.685,07	8,72%	100,00%
- Finantza-errentamenduengatik hartzekodunak		0,00%	0,00%	18.296,38	0,03%	90,65%	20.183,34	0,03%	100,00%
- Bestelako pasibo finantzarioak	3.177.615,00	5,00%	126,23%	3.923.918,03	6,41%	155,88%	2.517.345,06	4,12%	100,00%
<b>4.Zerga geroratuen pasiboak</b>	<b>19.408,40</b>	<b>0,03%</b>	<b>61,42%</b>	<b>25.390,37</b>	<b>0,04%</b>	<b>80,35%</b>	<b>31.598,54</b>	<b>0,05%</b>	<b>100,00%</b>
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>15.356.575,98</b>	<b>24,15%</b>	<b>88,12%</b>	<b>11.766.014,03</b>	<b>19,23%</b>	<b>67,51%</b>	<b>17.427.420,35</b>	<b>28,53%</b>	<b>100,00%</b>
<b>3.Epe laburreko zorrak</b>	<b>2.028.477,79</b>	<b>3,19%</b>	<b>21,78%</b>	<b>1.736.992,35</b>	<b>2,84%</b>	<b>18,65%</b>	<b>9.314.393,05</b>	<b>15,25%</b>	<b>100,00%</b>
- Kreditu erakundeekin zorrak	1.220.405,80	1,92%	14,12%	1.000.926,22	1,64%	11,58%	8.643.911,26	14,15%	100,00%
- Finantza-errentamenduengatik hartzekodunak	18.296,38	0,03%	1047,49%	1.886,96	0,00%	108,03%	1.746,69	0,00%	100,00%
- Bestelako pasibo finantzarioak	789.775,61	1,24%	118,10%	734.179,17	1,20%	109,79%	668.735,10	1,09%	100,00%
<b>4.Taldeko enpresekin eta elkartuekin epe laburreko zorrak</b>	<b>855.167,11</b>	<b>1,35%</b>	<b>100,00%</b>	<b>855.167,11</b>	<b>1,40%</b>	<b>100,00%</b>	<b>855.167,11</b>	<b>1,40%</b>	<b>100,00%</b>
<b>5.Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>12.469.930,74</b>	<b>19,61%</b>	<b>172,35%</b>	<b>9.168.554,23</b>	<b>14,99%</b>	<b>126,72%</b>	<b>7.235.259,86</b>	<b>11,84%</b>	<b>100,00%</b>
- Hornitzaileak	10.829.028,40	17,03%	172,27%	7.499.568,77	12,26%	119,30%	6.286.207,82	10,29%	100,00%
- Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak	601.897,23	0,95%	238,33%	540.940,30	0,88%	214,20%	252.543,09	0,41%	100,00%
- Pertsonala	282.626,71	0,44%	306,43%	227.801,12	0,37%	246,99%	92.231,86	0,15%	100,00%
- Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	608.574,40	0,96%	112,51%	693.105,81	1,13%	128,14%	540.903,28	0,89%	100,00%
- Bezeroek emandako aurrerakinak	147.804,00	0,23%	233,23%	207.138,23	0,34%	326,85%	63.373,81	0,10%	100,00%
<b>6.Epe laburreko aldirakapenak</b>	<b>3.000,34</b>	<b>0,00%</b>	<b>13,28%</b>	<b>5.300,34</b>	<b>0,01%</b>	<b>23,45%</b>	<b>22.600,33</b>	<b>0,04%</b>	<b>100,00%</b>
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>63.576.124,15</b>	<b>100,00%</b>	<b>104,07%</b>	<b>61.176.077,15</b>	<b>100,00%</b>	<b>100,15%</b>	<b>61.087.160,42</b>	<b>100,00%</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

## ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Ondare garbia enpresaren baliabide propioak dira. Aktiboei pasibo guztiak kendu ondoren geratzen den balioa da eta enpresako bazkideen edo jabeen ekarpenak barneratzen ditu. Pasiboa sozietate batek dituen betebeharrak osatzen dute eta, aktiboarekin gertatzen den moduan, pasiboa ere bi taldetan banatzen da: batetik, pasibo ez-korrontea, urte batetik gorako iraupena duten betebeharrak osatzen dute; eta bestetik, pasibo korrontea, urte batetik beherako iraupena duten betebeharrak. Ondorengo taulan, Indaux S.Aren ondare garbia eta pasiboa agertzen dira:

2019, 2020 eta 2021eko balio erlatiboei erreparatuz Indauxen finantza iturri nagusia ondare garbia dela ikus daiteke. Datu horiek honeko hauek dira: 2019an ondare garbiaren balio erlatiboa % 58,54koa da; 2020koa berriz, % 61,35koa eta 2021. urtekoa % 59,91. Hiru urte horietan erreserbek dute pisu gehien ondare garbian. Oinarrizko urtean, ekitaldiko emaitza negatiboa dela ikus daiteke eta, ondorioz, aurretik sozietateak galerak dituela ondorioztatzen da. Horrez gain, pasibo korrontek pasibo ez-korrontek baino pisu handiagoa du, beraz, epe laburreko zor gehiago ditu, % 28,53ko portzentailarekin. Epe laburreko zorrei dagokienez, kreditu erakundeekin zorrak nagusitzen dira batik bat. Pasibo korrontean hornitzaileek duten garrantzia ere aipatzekoa da, horiek % 10,29ko portzentaila izanik. Epe luzean ere kreditu erakundeekin zorrak ditu.

2020. urtean pasiboa % 0,15ean hazi da. Lehen aipatu bezala, urte honetan ere, ondare garbia da finantza iturri nagusia eta, hori, % 4,95ean hazi da. Hazkuntza hau bazkideen ekarpenen eta ekitaldiko emaitza positiboa izatearen ondorioz eman da, oinarrizko urtean ez bezala, urte honetan ekitaldiko emaitza positiboa baita, 289.322€takoa. Erreserbak dira ondare garbian pisu gehien izaten ari den taldea baina horiek %5,96ko beherakada izan dute. Bestalde, pasibo ez-korrontek eta korrontek pisu antzekoa dute ekitaldi honetan, biek ondare garbi eta pasibo osoan % 19 inguruko kopurua izanik. Epe luzeko zorrak % 50,41ean igo dira eta horren eragile nagusia kreditu erakundeekin zorrak eta bestelako pasibo finantzarioak izan duten hazkundera da. Pasibo korrontea berriz, %32,49an murriztu da. Epe laburreko zorrak ikaragarri murriztu dira kreditu erakundeekin zorra izugarritzko beherakada izan dutelako, % 88,42ko beherakada, alegia.

2021. ekitaldian, ondare garbiak eta pasiboak guztira % 4,07ko hazkundera izan dute. Indauxek ondare garbiarekin finantzatzen jarraitzen du eta erreserbak dira talde nausia.



Aurreko urtearekin alderatuta, ekitaldiko emaitza igo egin da eta bere kopurua 577.870,22€koa da. Oinarrizko urtean bezala, ekitaldi honetan berriz ere pasibo korronteak pasibo ez-korronteak baino pisu handiagoa du. Pasibo korronteak % 11,88ko beherakada izan, epe laburreko zorrak eta horren barruan kreditu erakundeekin zorrak murriztu direlako. Pasibo korronteak % 28,25eko hazkundera izan du eta horren eragile nagusiak kreditu erakundeekin epe luzeko zorrek izandako % 30eko hazkundera da.

### **3.2 GALDU-IRABAZIEN KONTUA**

Galdu-irabazien kontuak erakundearen ekitaldiko emaitza ekonomikoa adierazten du, hau da, enpresak izandako mozkinak edo galerak. Bi elementu jasotzen dira bertan, sarrerak eta gastuak. Sarrerak ekitaldian zehar ondare garbiak izandako gehikuntzak dira eta gastuak, berriz, ondare garbiak ekitaldian izandako murrizketak.

Indaux S.Aren 2019ko ekitaldiko emaitza negatiboa den arren, gainontzeko bi ekitaldietako emaitza positiboa da, izan ere, 2019ko emaitza -2.175.230,59€takoa da, 2020koa 289.322€takoa eta 2021. urtekoa 577.870,22€takoa. Emaitza horien zenbatekoa ustiapeneko eragiketen bidez lortu da.

2019an, salmenten zenbatekoa 51.201.215,06€takoa izan da. Gastu garrantzitsuenak hornikuntzak dira, salmenten erdia baino gehiago hartzen dutelarik, hain zuzen ere, bere portzentaia % 56,98koa da. Ustiapeneko emaitza -2.770.626,24€takoa izan da eta, zenbateko hori, negozio zifraren zenbateko garbiari ustiapeneko sarrerak gehituz eta gastuak kenduz lortu da. Emaitza finantzarioa ere negatiboa izan da, -221.142,63€takoa, alegia, eta emaitza negatibo horren ondorioz, zerga aurreko emaitza txikiagoa izan da. Azkenik, mozkinen gaineko zerga positiboa izan da, 816.538,28€takoa, eta zerga aurreko emaitzari zenbateko hori gehituta, -2.175.230,59€tako ekitaldiko emaitza lortu da.

2020. urtean, aurreko urtean ez bezala, ekitaldiko emaitza positiboa izan da eta horren eragile nagusia ustiapeneko emaitza ere positiboa izatea izan da. Ustiapeneko emaitzak % 23,59ko hazkundera izan du oinarrizko urtearekiko, hau da, 2019 urtearekiko. Salmentak % 5,47an jeitsi diren arren, ustiapeneko gastu garrantzitsuenak, hornikuntzak alegia, are gehiago gutxitu dira. Beraz, negozio zifraren zenbatekoan ustiapeneko sarrerek eta gastuek izandako eraginaren arabera, ustiapeneko emaitza positiboa izatea lortu da, hau da, 653.660,76€takoa. Emaitza finantzarioak negatiboa izaten jarraitzen du gastu finantzarioak sarrerak baino handiagoak izateagatik eta kanbio diferentziengatik. -402.994,12€tako emaitza finantzarioak zerga aurreko emaitza 250.666,64€takoa

izatea eragin du. Bestalde, mozkinen gaineko zergaren zenbateko 38.655,36€takoa izan da, aurreko urtean baino % 95,27 txikiago. Hori horrela izanda, Indaux S.Aren 2020ko ekitaldiko emaitza 289.322€takoa da.

Azkenik, 2021ean, ekitaldiko emaitzak positiboa izaten jarraitzen du, oinarrizko urtearekin alderatuta % 26,57ko hazkundea izanik. Urte honetan ere, emaitza positiboa ustiapenetik dator. Oinarrizko urtearekin alderatuta, ustiapeneko emaitza % 47,73an hazi da. Ustiapeneko gastu garrantzitsuak, hornikuntzak alegia, % 26,58an handitu diren arren, salmentak ere % 18,69ko portzentaian hazi dira, beraz horrek eragin du ustiapeneko emaitza handitzea eta 1.322.451,95€takoa izatea. Emaitza finantzarioak negatiboa izaten jarraizten du, -605.971,32€takoa alegia, eta horrek zerga aurreko emaitza 716.480,63€takoa izatea eragin du. Horrez gain, mozkinen gaineko zerga negatiboa izan da lehen aldiz aurreko urteekin alderatuta, eta horrek, ekitaldiko emaitza 577.870,22€takoa izatea eragin du. Jarraian agertzen diren 6 eta 7.taulan, Indaux S.Aren galdu-irabazien kontua azaltzen da.

6.TAULA: Indaux S.Aren galdu-irabazien kontua

	2021			2020			2019		
	Balio absolutuak	Ballio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Ballio erlatiboak	Zenbaki indizeak	Balio absolutuak	Ballio erlatiboak	Zenbaki indizeak
<b>1.Negozio zifraren zenbateko garbia</b>	<b>60.771.712,79</b>	<b>100,00%</b>	<b>118,69%</b>	<b>48.402.356,68</b>	<b>100,00%</b>	<b>94,53%</b>	<b>51.201.215,06</b>	<b>100,00%</b>	<b>100,00%</b>
a) Salmentak	60.722.229,65	99,92%	119,03%	48.281.178,56	99,75%	94,64%	51.014.383,47	99,64%	100,00%
b) Zerbitzu-emateak	49.483,14	0,08%	26,49%	121.178,12	0,25%	64,86%	186.831,59	0,36%	100,00%
<b>2.Produktu bukatuen eta bideango produktuen izakinen aldaketa</b>	<b>1.103.054,22</b>	<b>1,82%</b>	<b>161,44%</b>	<b>-1.439.028,10</b>	<b>2,97%</b>	<b>180,16%</b>	<b>-1.795.219,31</b>	<b>3,51%</b>	<b>100,00%</b>
<b>3.Enpresak bere aktiborako egindako lanak</b>	<b>21.388,28</b>	<b>0,04%</b>	<b>19,29%</b>	<b>31.244,65</b>	<b>0,06%</b>	<b>28,18%</b>	<b>110.859,93</b>	<b>0,22%</b>	<b>100,00%</b>
<b>4.Hornikuntzak</b>	<b>-36.927.490,42</b>	<b>60,76%</b>	<b>126,58%</b>	<b>-25.590.647,26</b>	<b>52,87%</b>	<b>87,72%</b>	<b>-29.174.138,99</b>	<b>56,98%</b>	<b>100,00%</b>
a) Salgaien kontsumoa	-7.830.773,41	12,89%	110,74%	-4.814.586,81	9,95%	68,09%	-7.071.172,38	13,81%	100,00%
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa	-24.633.827,66	40,54%	136,28%	-17.171.995,14	35,48%	95,00%	-18.075.247,92	35,30%	100,00%
c) Beste enpresek egindako lanak	-4.462.889,35	7,34%	110,80%	-3.604.065,31	7,45%	89,48%	-4.027.718,69	7,87%	100,00%
<b>5.Ustiapeneko bestelako sarrerak</b>	<b>335.598,39</b>	<b>0,55%</b>	<b>77,17%</b>	<b>628.368,40</b>	<b>1,30%</b>	<b>144,49%</b>	<b>434.877,34</b>	<b>0,85%</b>	<b>100,00%</b>
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	313.353,35	0,52%	102,73%	292.927,13	0,61%	96,03%	305.038,21	0,60%	100,00%
b) Ekitaldiko emaitzari egotzitako ustiapeneko diru-laguntzak	22.245,04	0,04%	17,13%	335.441,27	0,69%	258,35%	129.839,13	0,25%	100,00%
<b>6.Pertsonal gastuak</b>	<b>-12.989.572,22</b>	<b>21,37%</b>	<b>100,69%</b>	<b>-12.014.984,38</b>	<b>24,82%</b>	<b>93,14%</b>	<b>-12.900.283,02</b>	<b>25,20%</b>	<b>100,00%</b>
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-9.595.172,79	15,79%	100,53%	-8.815.395,56	18,21%	92,36%	-9.544.149,09	18,64%	100,00%
b) Karga sozialak	-3.394.399,43	5,59%	101,14%	-3.199.588,82	6,61%	95,34%	-3.356.133,93	6,55%	100,00%
<b>7.Ustiapeneko bestelako gastuak</b>	<b>-8.279.929,92</b>	<b>13,62%</b>	<b>102,50%</b>	<b>-6.600.460,88</b>	<b>13,64%</b>	<b>81,71%</b>	<b>-8.078.096,32</b>	<b>15,78%</b>	<b>100,00%</b>
a) Kanpo zerbitzuak	-8.065.239,40	13,27%	102,03%	-6.421.285,81	13,27%	81,23%	-7.905.089,18	15,44%	100,00%
b) Tributuetak	-84.864,60	0,14%	100,45%	-85.886,08	0,18%	101,66%	-84.484,25	0,17%	100,00%
c) Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura aldaketa	233,25	0,00%	202,88%	-1.224,99	0,00%	15,14%	-8.092,54	0,02%	100,00%
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-130.059,17	0,21%	161,70%	-92.064,00	0,19%	114,46%	-80.430,35	0,16%	100,00%
<b>8.Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>-2.704.631,06</b>	<b>4,45%</b>	<b>106,00%</b>	<b>-2.811.646,64</b>	<b>5,81%</b>	<b>110,19%</b>	<b>-2.551.628,45</b>	<b>4,98%</b>	<b>100,00%</b>
<b>9.Ibilgetu ez-finantzarioko eta bestelako en diru-laguntzen egozpena</b>	<b>24.924,86</b>	<b>0,04%</b>	<b>95,12%</b>	<b>25.867,38</b>	<b>0,05%</b>	<b>98,72%</b>	<b>26.203,90</b>	<b>0,05%</b>	<b>100,00%</b>
<b>11.Ibilgetuaren narriadura eta inorengatzearen emaitza</b>	<b>-23.790,84</b>	<b>0,04%</b>	<b>60,08%</b>				<b>-39.600,00</b>	<b>-0,08%</b>	<b>100,00%</b>
a) Narriadura eta galerak	-12.850,00	0,02%	32,45%				-39.600,00	-0,08%	100,00%
b) Inorengatzearen eta bestelako en emaitzak	-10.940,84	0,02%							
<b>13.Bstelako emaitzak</b>	<b>-8.812,13</b>	<b>0,01%</b>	<b>182,96%</b>	<b>22.590,91</b>	<b>0,05%</b>	<b>569,04%</b>	<b>-4.816,38</b>	<b>0,01%</b>	<b>100,00%</b>
<b>USTIAPENeko EMAITZA</b>	<b>1.322.451,95</b>	<b>2,18%</b>	<b>147,73%</b>	<b>653.660,76</b>	<b>1,35%</b>	<b>123,59%</b>	<b>-2.770.626,24</b>	<b>5,41%</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

7.TAULA: Indaux S.Aren galdu-irabazien kontua

14.Sarrera finantzarioak	13.250,15	0,02%	39,37%	14.618,57	0,03%	43,44%	33.654,18	0,07%	100,00%
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak	13.250,15	0,02%	39,37%	14.618,57	0,03%	43,44%	33.654,18	0,07%	100,00%
15.Gastu finantzarioak	-339.299,60	0,56%	144,75%	-316.108,35	0,65%	134,86%	-234.404,52	0,46%	100,00%
b) Hirugarrenetikiko zorrenak	-339.299,60	0,56%	144,75%	-316.108,35	0,65%	134,86%	-234.404,52	0,46%	100,00%
17.Kanbio diferentziak	-279.921,87	0,46%	555,49%	-101.981,87	0,21%	202,38%	-50.392,29	0,10%	100,00%
18.Finantza-tresnen narriadura eta inorengatzearen emaitza				477,53	0,00%	1,59%	30.000,00	0,06%	100,00%
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>-605.971,32</b>	<b>1,00%</b>	<b>274,02%</b>	<b>-402.994,12</b>	<b>0,83%</b>	<b>182,23%</b>	<b>-221.142,63</b>	<b>0,43%</b>	<b>100,00%</b>
<b>ZERGA AURREKO EMAITZA</b>	<b>716.480,63</b>	<b>1,18%</b>	<b>223,85%</b>	<b>250.666,64</b>	<b>0,52%</b>	<b>108,38%</b>	<b>-2.991.768,87</b>	<b>5,84%</b>	<b>100,00%</b>
20.Mozkinaren gaineko zerga	-138.610,41	0,23%	-216,97%	38.655,36	0,08%	4,73%	816.538,28	1,59%	100,00%
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>577.870,22</b>	<b>0,95%</b>	<b>126,57%</b>	<b>289.322,00</b>	<b>0,60%</b>	<b>113,30%</b>	<b>-2.175.230,59</b>	<b>4,25%</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

### 3.3 ERROTAZIO FONDOA

Errotazio Fondoaren analisia egiteko balantzean agertzen diren datuetan oinarritu behar da, bertan, sozietatearen inbertsioak eta finantza iturriak azaltzen baitira data zehatz baten arabera sailkatuta, epe luze eta laburrean, alegia.

Alde batetik, epe luzeko inbertsio-finantzaketa zikloan, ibilgetu material eta ukiezinetan inbertsioak egitea beharrezkoa da eta, epealdi horretako inbertsioen berreskuratzea, amortizazioaren edo nariaduren bidez egiten da. Urte bete baino gehiago behar izaten da inbertsio horiek berreskuratzeko beraz, horiek estaltzeko epe luzeko finantza iturriak erabiltzea gomendagarria da. Bestetik, epe laburreko inbertsio-finantzaketa zikloan, ohikoa da izakinetan inbertitzea. Izakinetan inbertsioa egiten denetik produktuen salmentaren eta kobroaren bidez inbertsioa berreskuratzen den arte igarotzen den denbora hartzen da kontutan eta, orokorrean, ez da urte bat baino luzeagoa izaten. Epe laburreko inbertsioak berreskuratzeko epe laburreko finantza iturriak ahalbidetzen dira.

Esan bezala, balantzeko informazioaren bidez, bi enpresa-zikloen inbertsio-finantzaketa fluxuen analisia egin daiteke data zehatz batean. Enpresak aktiboen likidezia bihurtzearen eta pasiboen galdagarritasunaren arteko oreka egokia lortu behar du. Horretarako, Errotazio Fondoa aztertu behar da. Errotazio Fondoa, epe luzeko eta epe laburreko inbertsioak estaltzeko erabiltzen diren finantza iturriak aztertzeko erabiltzen da eta hori kalkulatzeko bi formula daude:

- **ERROTAZIO FONDOA** = Aktibo korrontea - Pasibo korrontea
- **ERROTAZIO FONDOA** = Kapital iraunkorak (Ondare Garbia eta Pasibo ez-korrontea)  
- Aktibo ez-korrontea

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019)

### 8.TAULA: Errotazio Fondoaren kalkulua

	2021	2020	2019
Aktibo korrontea	44.107.107,78	39.620.921,94	37.497.950,69
Pasibo korrontea	15.356.575,98	11.766.014,03	17.427.420,35
<b>ERROTazio FONDOA</b>	<b>28.750.531,80</b>	<b>27.854.907,91</b>	<b>20.070.530,34</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetan oinarrituta

8.taula erreparatuz, Indauxen Errotazio Fondoa positiboa da hiru ekitaldietan eta, horrek esan nahi du, epe laburreko finantza iturriek ez dituztela epe laburreko behar finantzario guztiak estaltzen. Hori horrela izateak, epe laburreko beharrak estaltzeko epe luzeko finantza iturriak erabiltzea suposatzen du. Horrek segurtasun finantzarioa ematen dio enpresari, izan ere, epe laburrari egonkortasuna ematen dio eta, aktibo korrontearen zati bat epe luzeko baliabideekin finantzatzen duenez, epe laburreko finantzaketa itzultzeko konpromisoerik aurre egiteko gaitasuna du.

Jarraian, Indauxen Errotazio Fondoaren analisi sakona burutuko da. 9.taula honetan Errotazio Fondoaren osagaiak agertzen dira, baita urtez urte emaitza horiek izandako aldaketak eta zenbaki horietan eragin duten eragileak ere.

### 9.TAULA: Errotazio Fondoaren osaera

	2021	Aldaketa	2020	Aldaketa	2019
Izakinak (+)	14.667.519,31	1.844.778,65	12.822.740,66	-1.743.838,45	14.566.579,11
Bezeroak (+)	13.163.648,47	978.926,55	12.184.721,92	702.282,23	11.482.439,69
<b>Ustiapeneko Oinarrizko Behar Gordina</b>	<b>27.831.167,78</b>	<b>2.823.705,20</b>	<b>25.007.462,58</b>	<b>-1.041.556,22</b>	<b>26.049.018,80</b>
Hornitzaileak (-)	11.430.350,92	3.433.703,79	7.996.647,13	1.458.470,93	6.538.176,20
<b>Ustiapeneko Oinarrizko Errotazio Fondoa</b>	<b>16.400.816,86</b>	<b>-609.998,59</b>	<b>17.010.815,45</b>	<b>-2.500.027,15</b>	<b>19.510.842,60</b>
Ustiapeneko bestelako Aktibo korrontek (+)	586.620,62	142.011,73	444.608,89	-82.999,89	527.608,78
Ustiapeneko bestelako Pasibo korrontek (-)	894.201,48	-32.005,79	926.207,27	270.471,80	655.735,47
<b>Ustiapeneko Errotazio Fondoa</b>	<b>16.093.236,00</b>	<b>-435.981,07</b>	<b>16.529.217,07</b>	<b>-2.853.498,84</b>	<b>19.382.715,91</b>
Ustiapenetik kanpoko Aktibo korrontek (+)	8.177.429,08	-918.412,86	9.095.841,94	-139.030,44	9.234.872,38
Ustiapenetik kanpoko Pasibo korrontek (-)	2.883.644,90	291.485,44	2.592.159,46	-7.577.400,70	10.169.560,16
Eskudirdua (+)	7.363.511,59	2.541.503,23	4.822.008,36	3.199.505,15	1.622.503,21
<b>ERROTazio FONDOA</b>	<b>28.750.531,77</b>	<b>895.623,86</b>	<b>27.854.907,91</b>	<b>7.784.376,57</b>	<b>20.070.531,34</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

2019an Errotazio Fondoa positiboa da, 20.070.531,34€tako. Emaitza horrek esan nahi du, epe laburreko behar finantzarioak estaltzeko epe laburreko finantza iturriak ez direla nahikoak;

horregatik, epe laburreko hainbat behar epe luzeko baliabideekin finantzatuko dira. Errotazio Fondoa positiboa izatearen eragile nagusia ustiapeneko jardura da. Ustiapeneko oinarrizko behar gordina, izankinen eta bezeroen saldoetik lortutakoa, hornitzaileen finantzaketarekin estaltzen da. Ustiapeneko bestelako aktibo eta pasibo korronteei dagokienez, pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa da eta horrek erabilgarritasun finantzarioa sortzen du eta ustiapeneko errotazio fondoa 19.382.715,91€tako izatea eragin. Ustiapenetik kanpo ere erabilgarritasun finantzarioa sortu da pasibo korrontek aktibo korrontek baino handiagoak direlako. Bestalde, diruzaintzaren zenbatekoak ez du eragin handirik sortu 2019ko Errotazio Fondoaren emaitzan.

2020an Errotazio Fondoaren egiturak berdina izaten jarraitzen du, hau da, emaitza positiboa da eta hori horrela izatea ustiapenari dagokio. Aurreko urtearekin alderatuta, Errotazio Fondoaren zenbatekoa hazi egin da eta, ondorioz, epe luzeko finantza iturriekin estaltzen ziren epe laburreko inbertsioen zatia handitu egin da. Igoera hori ustiapenetik kanpo gertatu diren aldaketengatik izan da. Izan ere, ekitaldi honetan, ustiapenetik kanpoko pasibo korrontek beherakada handia izan dute aurreko urtearekin alderatuta eta, horrek, ustiapenetik kanpoko aktibo korrontek pasibo korrontek baino handiagoa izatea eragin du eta behar finantzarioa sortu. Diruzaintza ere hazi egin da 2019tik eta, hazkunde horrek ere 2020ko Errotazio Fondoa 27.854.907,91€tako izatea eragin du.

2021ean ere Errotazio Fondoak positiboa izaten jarraitzen du eta 895.623,86€tan handitu da. Gorakada horren eragile nagusia eskudiruak izan duen hazkundera izan da, 2.541.503,23€tako igoera, alegia.

### **3.4 KAUDIMEN FINANTZARIOAREN ANALISIA**

Sozietatearen analisi ekonomiko-finantzarioaren barnean oso garrantzitsua da erakundera epe luze edo laburrean bere zor guztiei aurre egiteko gai den ezagutzea. Beraz, jarraian azaltzen diren formula eta ratioen bidez, Indaux S.Aren kaudimenari buruzko informazio gehiago izango dugu:

Formulak:

1- Epe laburreko kaudimen ratioa = Aktibo korrontea / Pasibo korrontea

2- Likideziaren edo froga garratzaren ratioa = Aktibo korrontea - Izakinak / Pasibo korrontea

3- Berehalako likidezia edo erabilgarritasun ratioa = Erabilgarria / Pasibo korrontea

4- Epe luzeko kaudimena = Aktiboa guztira / Pasiboa guztira

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

Kaudimen ratioak:

10.TAULA: Kaudimen ratioak

	2021	2020	2019
<b>Epe laburreko kaudimen ratioa</b>	2,87	3,37	2,15
<b>Likidezia edo froga garratzaren ratioa</b>	1,92	2,27	1,31
<b>Berehalako likidezia edo erabilgarritasun ratioa</b>	0,48	0,41	0,09
<b>Epe luzeko kaudimen ratioa</b>	2,49	2,59	2,41

Iturria: Norberak egina, aurreko formulak erabiliz

Epe laburrean hiru ratio erabiltzen dira: epe laburreko kaudimen ratioa, likidezia edo froga garratzaren ratioa eta berehalako likidezia edo erabilgarritasun ratioa.

- Epe laburreko kaudimen ratioa: aurretik egindako Errotazio Fondoaren analisisian, errotazio fondoa positiboa dela ikusi da, baina ratio honen zenbateko 1 baino handiagoa izatearen ondorioz ere, hiru ekitaldieetako Errotazio Fondoa positiboa dela ondoriozta daiteke. Horrek, Indaux S.A, epe laburrera kaudimenduna dela esan nahi du, hau da, bere aktiboekin epe laburreko zorrak estaltzeko gai dela, baita epe luzeko zor batzuk ere. 2019an, epe laburreko kaudimen ratioa % 215koa da eta, horrek, sozietateak epe laburreko zorretan dituen 100€ei aurre egiteko 215€ko ondasunak dituela esan nahi du. 2020an portzantaia hori hazi egin da, zenbatekoa % 337koa izanik, beraz, ekitaldi honetan aktibo gehiago ditu zorrei



aurre egiteko. Azken ekitaldian berriz, 2021ean alegia, epe laburreko kaudimenaren ratioa % 287ra jeitsi da eta sozietatearen aktiboen bidez zorrei aurre egiteko duen gaitasuna gutxitu.

- Likidezia edo froga garratzaren ratioa: erakundeak izakinetan duen saldoa erabili gabe epe laburreko zenbat zorrei aurre egiteko gai den adierazten du ratio honek. Indauxen kasuan, 2019an zorren % 131 estaliko ditu bere aktiboekin, 2020an % 227 eta, 2021ean berriz, % 192.
- Berehalako likidezia edo erabilgarritasun ratioa: epe laburreko zorren euro bakoitzeko enpresak diruzaintzan erabilgarri duen kopurua azaltzen du; beraz, 2019an Indaux S.Aak epe laburreko 100€ko zor bakoitzari aurre egiteko 9€ euro ditu erabilgarri diruzaintzan, 2020an 41€ eta 2021ean 48€.

Bestalde, epe luzeko kaudimen ratioaren bitartez, sozietateak bere zor guztiei aurre egiteko duen gaitasuna aztertu daiteke. Indaux S.Aren kasuan, hiru ekitaldieetan, epe luzeko kaudimen ratioa bat baino handiagoa dela ikus daiteke eta, horregatik, enpresa epe luzera kaudimenduna da, hau da, bere ondasun eta eskubideekin bere zorrei aurre egiteko gai da. Indaux S.Aren epe luzeko kaudimen ratioaren emaitzak ondorengoak dira: 2019an % 241, 2020an % 259 eta 2021ean % 249.

### 3.5 ERRENTAGARRITASUNA

#### Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa ustiapenaren eraginkortasun neurria da eta, inbertitutako euro bakoitzeko enpresak lor dezakeen emaitza adierazten du, finantza-iturrien eragina kontuan izan gabe, alegia, nola finantzatuko den kontuan hartu gabe. Errentagarritasun ekonomikoa ROI (Return On Investment) izeneko ratioaren bidez kalkulatzen da eta ondorengo hau da bere formula:

$$\text{ROI} = \text{BAI} / \text{A}$$

BAI (Beneficio antes de intereses) = Emaitza + Finantza Gastuak

BAIT = Emaitza + Finantza Gastuak +/- Mozkinen Gaineko Zerga

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

Kasu batzuetan, errentagarritasun ekonomikoa BAI formularen bitartez kalkulatu beharrean BAIT formularen bidez lortzen da. Azken adierazpen horren bidez, politika finantzarioaren eta fiskalaren eragina neutralizatzen dira. Mozkinen gaineko zergak ekitaldi ezberdinetan izan duen eragina kalkulatzeko beharrezkoa izaten da BAI edo BAIT erabili behar den erabakitzeko. Horretarako, politika fiskala kalkulatu behar da honako formula honekin:

$$\text{Politika fiskala} = \text{Mozkinen Gaineko Zerga} / \text{Zerga Aurreko Emaidza}$$

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

#### 11.TAULA: Politika fiskalaren kalkulua

	2021	2020	2019
<b>Politika fiskala</b>	% -19,35	% 15,42	% -27,29

Iturria: Norberak egin, aurreko formulak erabiliz

11.taulan kalkulaturako politika fiskalaren bidez, mozkinen gaineko zergak hiru ekitaldietan izandako eragina oso ezberdina da, beraz, Indauxen kasuan errentagarritasun ekonomikoa BAIT formularen bitartez kalkulaturako da:

Bestalde, ROI ratioan beste bi aldagaiak ere badute eragina, marjinak eta errotazioak, alegia. Marjinak saldutako euro bakoitzeko enpresak lortutako emaitza adierazten du. Errotazioak, berriz, inbertsio euro bakoitzeko sozietateak lortutako salmentak. Jarraian agertzen diren formulen bidez kalkulatu dira datu horiek:

$$\text{Marjina} = \text{BAIT} / \text{Salmentak}$$

$$\text{Errotazioa} = \text{Salmentak} / \text{Aktiboa}$$

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

Jarraian agertzen den 12.taula honetan, Indauxen 2019, 2020 eta 2021.urteetako errentagarritasun ekonomikoaren balioak azaltzen dira, baita emaitza hori kalkulatzeko erabilitako aldagaiak ere.

## 12.TAULA: Errentagarritasun ekonomikoaren kalkulua

	2021	2020	2019
<b>BAIT</b>	1.055.780,23	566.774,99	-2.757.364,35
<b>Aktiboa</b>	63.576.124,15	61.176.077,15	61.087.160,42
<b>Salmentak</b>	60.771.712,79	48.402.356,68	51.201.215,06
<b>Margina</b>	1,74%	1,17%	-5,39%
<b>Errotazioa</b>	0,96	0,79	0,84
<b>Errentagarritasun Ekonomikoa</b>	<b>1,66%</b>	<b>0,93%</b>	<b>-4,51%</b>

Iturria: Norberak egina, aurreko formulak erabiliz

Indauxek hiru ekitaldietan lortutako errentagarritasun ekonomikoak hauek dira: 2019an % -4,51, 2020an % 0,93 eta 2021ean % 1,66. Ehuneko horiek urte bakoitzean sozietateak inbertitutako euro bakoitzagatik lortutako irabaziak edo galerak adierazten dituzte. Urtetik urtera errentagarritasun ekonomikoa handitzen doa eta igoera horren eragile nagusia marjina da. Salmentek hazkundera izan dute 2019tik 2021era, baina emaitzak are gehiago igo dira, beraz, marjina handitzearen arrazoi nagusia emaitzaren hazkundera izan da. Horrez gain, errotazioa handitu egin da, baina 3 ekitaldietan errotazioaren kopurua 1 baino txikiagoa denez, errentagarritasunaren zenbateko murriztu egin da.

### Errentagarritasun finantzarioa

Errentagarritasun finantzarioak, akziodunek lortutako errentagarritasuna neurtzen du, akziodunek inbertitutako euro bakoitzeko lortzen duen emaitza, alegia. Errentagarritasun finantzarioaren helburuak bi dira: errentagarritasuna kalkulatzeko eta izandako hazkuntza edo murrizketaren arrazoiak identifikatzeko. Errentagarritasun finantzarioa neurtzeko ROE (Return On Equity) izeneko ratioa erabiltzen da. Horrez gain, akziodunen errentagarritasunaren gorabeherak azaltzeko beharrezkoak dira beste aldagai batzuk kalkulatzeko. Jarraian azaltzen dira dagozkien formulak:

$$\text{ROE, } r1 \text{ (Akziodunen errentagarritasuna) = Emaitza / Ondare Garbia}$$

$$r3 \text{ (zorraren batz besteko kostua) = Finantza gastua (1-T) / Zor Finantzarioa}$$

$$r2 \text{ (Errentagarritasun finantzario globala) = Emaitza + Finantza gastua (1-T) / OG + Zor Finantzarioa}$$

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

Zorraren kostua eta errentagarritasun finantzario globala kalkulatzeko finantza gastuei zerga-tasa bat aplikatu behar zaie. Zerga-tasa horri dagokionez, Indaux S.Ari aplikatu beharreko sozietateen gaineko zerga % 24koa da Gipuzkoako Ogasunaren zergaren 2021eko karga tasen arabera, beraz, kalkuluak zenbateko horrekin egingo dira. Bestalde, enpresaren finantza iturriek akziodunen errentagarritasunean duten eragina aztertzeke interesgarria izan daiteke apalankamendu finantzarioa kalkulatzeko. Apalankamendua kalkulatzeko erabilitako formulak honako hauek dira:

$$\text{Apalankamendu ratioa} = \text{Zor finantzarioa} / \text{Ondare Garbia}$$

$$\text{Apalankamendua} = (r2-r3) \text{ Zor finantzarioa} / \text{Ondare Garbia}$$

Iturria: (Aldazabal & Zubiaurre, 2019).

Beraz, jarraian agertzen den 13.taulan, Indaux S.Aren errentagarritasun finantzarioa kalkulatzeko erabilitako aldagaiak agertzen dira, baita apalankamendu finantzarioarenak ere:

13.TAULA: Errentagarritasun finantzaioaren eta apalankamendu finantzarioaren kalkuluak

	2021	2020	2019
<b>Emitza</b>	577.870,22	289.322,00	-2.175.230,59
<b>Ondare Garbia</b>	38.091.518,18	37.532.590,85	35.762.928,06
<b>Finantza gastua (1-T)</b>	257.867,70	240.242,35	178.147,44
<b>Zor finantzarioa</b>	9.006.579,50	9.765.960,82	14.826.763,44
<b>r1</b>	<b>1,52%</b>	<b>0,77%</b>	<b>-6,08%</b>
<b>r3</b>	<b>2,86%</b>	<b>2,46%</b>	<b>1,20%</b>
<b>r2</b>	<b>1,77%</b>	<b>1,12%</b>	<b>-3,95%</b>
<b>Apalankamendu finantzarioa</b>	<b>-0,26%</b>	<b>-0,35%</b>	<b>-2,13%</b>

Iturria: Norberak egin, aurreko formulak erabiliz

Akziodunek hiru ekitaldietan lortutako errentagarritasunak honakoak dira: 2019an % -6,08koa, 2020an % 0,77koa eta 2021ean % 1,52koa. Errentagarritasun finantzarioak hiru urteetan izan duen emaitzaren eragile nagusia r2 izan da, hau da, enpresaren jardueratik lortutako etekina. 2019an, r2-ren emaitza % -3,95koa izan da, beraz, akziodunek kopuru hori galdu dute enpresaren errentagarritasunetik. Bestalde, apalankamendu finantzarioa ere negatiboa izan da, % -2,13koa. Beraz, akziodunen errentagarritasuna negatiboa izatearen arrazoiak bi emaitza negatibo horiek dira. 2020.urtean, akziodunen errentagarritasuna igo egin da, % -6,08tik % 0,77ra. Hazkunde horren arrazoiak errentagarritasun finantzario globala izan da. Apalankamendu finantzarioa hazteak ere eragin du igoera hori, nahiz eta oraindik bere emaitza negatiboa izan. 2021ean ere, joera berdina

izan du. Akziodunek inbertitutako euro bakoitzeko lortutako emaitza hazi egin da, urte honetan, % 1,52ko zenbatekoa izanik. Aurreko urtean bezala, hazkunde horren eragile nagusia enpresari dagokion errentagarritasuna igotzea izan da, hau da r2-ren hazkundera.

### **3.6 ADITORETZA BURUTZEKO ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOTIK ATERATAKO ONDORIOAK**

Orain arte egindako analisi ekonomiko-finantzariotik zenbait ondorio azpimarratu behar dira jarraian egingo den 2021.ekitaldiko auditoretza burutzeko.

Lehenik eta behin, balantzean, aktibo korronteak aktibo ez korronteak baina pisu handiagoa duela ikus daiteke, aktibo guztiaren % 69,38ko portzentaia izanik. Aktibo korrontearen barruan, izakinak dira aldagai garrantzitsuenak, baita zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuen barruan bezeroak ere. Diruzaintzaren zenbatekoa txikiagoa den arren, garrantzitsua da saldo hori ere aztertzea, beraz, jarraian azalduko diren auditorteza probetan hiru eremu horiek aztertuko dira. Ondare garbiari eta pasiboari dagokionez, Indaux S.A ondare garbiarekin finantzatzen da eta, arrazoi horrengatik, ondare garbiaren azterketa sakonago bat ere burutuko da jarraian.

Bestalde, errotazio fondoari, kaudimenari eta errentagarritasunari dagokionez, Indaux S.Aren emaitzak positiboak direla ondorioztatu da. Izan ere, errotazio fondoaren eta kaudimenaren analisiaren bitartez, sozietatea epe laburrera eta luzera kaudimenduna dela eta bere zorrei aurre egiteko gai dela ikusi da. Horrez gain, errentagarritasun ekonomiko eta finantzarioaren bitartez, sozietateak inbertitutako euro bakoitzeko lortu duen emaitza positiboa izan da, baita akziodunak lortutako errentagarritasunaren emaitza ere.

Beraz, hori guztia esan da eta NIA-ES 570<sup>2</sup>aren arabera, Indaux S.Aek urteko kontuak egiterako garaian, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa modu egokian aplikatu duela esan daiteke, ez baitago ebidentziarik Indaux S.Aek etorkizun hurbilean bere jarduerarekin jarraitzeko arazorik izango duenik. Hori horrela izanda, Indaux S.Aren 2021eko urteko kontuen auditoretza burutuko da jarraian, aplikatu beharreko finantza informazioaren arauen arabera.

---

<sup>2</sup> NIA-ES 570: "Empresa en Funcionamiento".

## **4. AUDITORETZA PROZESUA**

Jarraian, Indaux S.A sozietatearen 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren auditoretza prozesua burutuko da. Lehenik eta behin, auditoretza bulegoa eta lanaren banaketa azalduko dira. Jarraian, mandatu akordio eta onarpenaren bitartez, auditoretzaren baldintzak adostuko dira eta, baldintza horiek betetzean, auditoretza onartu. Horrez gain, barne-kontrol sistemaren azterketa eta komunikazioaren bidez, akats materialen identifikazioa eta balorazioa egingo da, Indaux S.Aren aldetik jasotako informazioaren fidagarritasun maila erabakitzeko. Bestalde, auditoretza arriskuak ere aztertuko dira jarraian, auditoreak iritzia ematerako garaian egon daitezken akatsak kontuan hartuz. Azkenik, atal honetan, zenbait auditoretza proba gauzatuko dira auditoretzaren ebidentzia lortzeko.

### **4.1 AUDITORETZA BULEGOA ETA LANAREN BANAKETA**

Auditoretza bulegoa eta lanaren banaketa egiteko Gayca Auditores E.M.S hartu da eredutzat, bera izan baita errealitatean Indaux S.Aren auditoretza burutu duena, baina gainontzeko datu guztiak asmatutakoak dira.

#### **4.1.1 AUDITORETZA BULEGOA: LAN TALDEA**

Indaux S.Aren urteko kontuen auditoretza Gayca Auditores E.M.Sk burutu du. 1987an sortu zen sozietatea eta bere egoitza nagusia Irunen du. Auditoretza arloan lan egiteaz gain beste zenbait zerbitzu ere eskaintzen ditu: aholkularitza, konsultoretza eta Start Up-ak. Jarraian agertzen den taula honetan lagile taldea osatzen duten kideak azaltzen dira:

14.TAULA: Auditoretza taldeko kideak

<b>LANGILEAK</b>	<b>MAILA</b>	<b>LAN- ESPERIENTZIA (URTEAK)</b>	<b>JARDUNEKO AUDITOREA</b>
Leire Aldalur	Junior	1	Ez
Maddalen Iraola	Junior	1	Ez
Gorka Aristi	Junior	2	Ez
Jon Eguren	Senior	3	Ez
Miren Campos	Senior	4	Bai
Aitor Aranguren	Senior	4	Bai
Maialen Urresti	Gerentea	8	Bai
Garazi Eizagirre	Bazkidea	14	Bai

Iturria: Norberak egina

Taldeko kide bakoitzak duen mailaren arabera lan ezberdinak egiten ditu:

1. Junior edo auditore laguntzailea: bi urte bitarteko lan esperientzia dutenak sartzen dira talde honetan. Auditoretza bulegoko lanaren zati handi bat garatzen dute eta honako hauek dira dituzten funtzioak: auditoretza programei esleitutako prozedurak gauzatzea eta dokumentatzea; aurrekontuei eskainitako denbora banatzea; lanaren aurrerapenaren eta egoera kritikoen inguruan seniorrekin komunikazio egokia izatea; lan prozeduretan seniorren iradokizunak gehitzea eta horiek lanaren garapenean esleitutako zereginak betetzea eta auditoretza prozesuan hobekuntzak proposatzea.
2. Senior: 2-5 urtetako lan esperientzia dutenak dira eta langileen lana gainbegiratu eta berrikusten dute. Auditoretzaren plangintzaz, betetzeaz eta amaitzeaz arduratzen dira eta aurrekontuak diseinatzen dituzte. Horrez gain, auditoretza laguntzaileak gainbegiratu eta aholkatzen dituzte eta auditoretza programetan esleitutako prozedurak ulertzen direla ziurtatu. Ebidentzia nahikoa dagoela ziurtatzeko laneko paper guztiak berrikusten dituzte eta, gainera, arlo konplexuetan auditotzeta prozedurak gauzatzen ditu. Arazoak identifikatzeaz gain kudeatzaileei ere behar bezala informatzen die, irtenbide posibleak

proposatuz. Bezeroekin duten konpromisoa betetzen dela ere ziurtatzen dute eta, baita gerenteentzat txostenak diseinatu ere, besteak beste.

3. Gerentea: gerenteek 5-10 urte bitarteko lan esperientzia izaten dute eta hauek dira betetzen dituzten funtzioak:

- Auditoretza lana egingo duen taldea antolatzen dute.
- Bezeroen beharrak eta lan taldearen baliabideak kontutan hartuz lanaren kronograma definitzen dute.
- Auditoretza prozedurak berrikusten eta onartzen ditu.
- Auditoretza taldeari orientazioa ematen dio.
- Bezeroekin harremanetan egoten da eta bezero berrien lorpena kudeatzen dute.

4. Bazkidea: 10 urte baino gehiagoko lan esperientzia duten auditoreak dira. Bezeroekin auditoretzaren baldintzak adosten ditu eta taldearen independentzia ziurtatu. Horrez gain, bezeroak auditoretzaren aurrerapenen inguruan eguneratuta mantendu behar ditu. Auditoretza plana berrikusi eta onartu behar ditu, baita taldeko kideak aholkatu ere. Arlo kritikoetako lan paperak berrikusteaz eta onartzeaz ere arduratzen da. Auditoretzaren nabaritasunak eta ondorioak balioztatzen ditu eta auditoretza ixtean, emaitzak aurkezten dizkio bezeroari.

#### 4.1.2 AUDITORETZA LANAREN BANAKETA: TALDE ARDURADUNA, ORDUAK ETA AUDITORETZAREN AURREKONTUA

NIA-ES 300<sup>3</sup>ek dioenez, auditoretza lan guztiak behar bezala planifikatu, ikuskatu eta gauzatu behar dira. Lehen aipatu dudan moduan, Indaux S.Aren urteko kontuen auditoretza Gayca Auditores SLeke gauzatuko du eta, horrek, lan talde kualifikatu bat izendatuko du auditoretza lana behar bezala burutzeko.

Aurrekontuari dagokionez, auditoretza lana egiteko 195 ordu beharko dituzte auditoreek eta auditoretzak guztira 13.950€ko kostua izango du. Auditoreen lana hainbat eremutan banatuta egongo da eta lanorduen batezbesteko kostua 70€koa izango da. Jarraian dagoen taulan Indaux S.Aren auditoretzaren aurrekontua agertzen da.

---

<sup>3</sup> NIA-ES 300: "Planificación de la auditoría de estados financieros".



15.TAULA: auditoretzaren aurrekontua

EREMUA	Orduko kostua (€/O)	Orduak (O)	Kostu totala (€)
Izakinak	70	45	3150
Bezeroak	70	45	3150
Diruzaintza	70	45	3150
Ondare Garbia	75	60	4500
<b>GUZTIRA</b>		<b>195</b>	<b>13950</b>

Iturria: Norberak egina

#### 4.2. AUDITORETZAREN MANDATU AKORDIOA ETA ONARPENA

NIA-ES 210<sup>4</sup>aren arabera, auditoreak auditoretza egin aurretik, zenbait baldintza betetzen direla egiaztatu behar du. Batetik, finantza egoerak prestatzeko erabilitako finantza informazioa onargarria dela zehaztuko du. Bestetik, zuzendaritzak bere erantzukizuna aitortzen eta ulertzen duela baieztatuko du. Horretarako, auditoretzaren mandatu akordioa erabiltzen da (I.eranskina). Auditoreak mandatu gutuna prestatuko du auditoretzaren baldintzak finkatzeko. Behin gutuna prestatzerakoan, bi aldeek sinatuko dute akordioa eta auditoretza kontratua bihurtuko da. Paktu horretan, argi utziko dira auditoria lanaren helburuak, eremua, erantzukizunak eta ordainsariak, besteak beste.

Hau esanda, Gayca Auditores E.M.S auditoretza bulegoak enkargua onartuko du Indaux S.A finantza egoerak prestatzeko eskaintakok finantza informazio onargarria erabiltzen duela egiaztatu ondoren. Gainera, Indauxek auditorearen helburuak ezagutzen ditu eta auditore bulegoari beharrezko informazio guztia eskainiko dio. Horrez gain, sozietatean dauden sailen barne kontrola egiteko baimena emango dio auditoreari, horren bidez, egoera finantzarioak akats nabarmenik gabe prestatu ahal izateko. Gainera, Gayca Auditores E.M.Sk independentea dela azalduko du independentziaren aitopene gutunaren bidez (II.eranskina), eta, era horretara, arrazoi teknikoengatik lana burutzeko izan daitezkeen arazoak kontutan hartu dituela adieraziko du.

Bestalde, Gayca Auditores E.M.Sk auditoria txostena burutzeko beharrezkoak diren baliabideak eta denborak errespetatuko ditu. Hauek dira enkarguaren data garrantitsuenak:

- 2021.urteko urteko kontuen auditoretza burutuko denez, 2021eko urriaren 4an Gayca E.M.Sko auditoreak Indauxeko zuzendaritzako kideekin elkartuko dira eta mandatu txostena prestatuko dute.

<sup>4</sup> NIA-ES 210: "Acuerdos de los términos del encargo de auditoría".

- 2021eko abenduaren 31an ekitaldia itxiko da. Behin ekitaldia itxita, Indauxeko administratzaileek hiru hilabeteko epea izango dute urteko kontuak prestatzeko.
- 2022ko otsailaren 12an Indaux S.Ak 2021ko urteko kontuak prest izango ditu eta Gayca E.M.Sko auditoreei pasako dizkie hauek auditoretza txostena presta dezaten.
- Auditoretza txostena Batzar Orokorra ospatu aurretik prest izan behar dute auditoreek eta urteko kontuak eskuratzen dituztenetik hilebeteko epea dute gutxienez txostena prestatzeko. Kasu honetan, Batzar Orokorra 2022ko ekainaren 5ean ospatuko da eta auditoretza txostena 2022ko maiatzaren 31n igorriko da.
- Ekainean egingo den Batzar Orokorrean urteko kontuak onartuko dira eta, data horretatik hasita hilabeteko epea egongo da urteko kontuak eta auditoretze txostena Merkataritza Erregistroan gordetzeko.

### **4.3. BARNE-KONTROL SISTEMAREN AZTERKETA ETA KOMUNIKAZIOA**

NIA-ES 315<sup>5</sup>ek dioenez, auditorearen helburua akats materialen arriskuen identifikazioa eta balorazioa egitea da. Horretarako, auditoreak erakundea eta haren ingurunea ezagutu behar ditu, baita barne kontrola aztertu ere. Barne kontrola erakundeko zuzendaritzak diseinatu, ezarri eta mantendutako prozesua da eta ondorengo bermatzen du: aktiboak behar bezala babesturik daudela, kontabilitate erregistroak fidagarriak direla eta, zuzendaritzak finkatutako irizpideen arabera, sozietatearen aktibitatea eraginkorra eta efizientea dela. Barne kontrolaren funtzioetako bat irregulartasunak arrazoizko bizkortasunarekin ezagutzea da eta, horren bidez, kontabilitate erregistroen fidagarritasuna eta zintzotasuna bermatzea.

Auditoreek barne kontrola aztertzearen bidez, enpresatik lortzen duen informazioaren fidagarritasun maila erabakiko du eta, ondorioz, oinarri fidagarria izango du auditoretza proben eremua, izaera eta aplikazioa erabakitzerako garaian. Baina, barne kontrolak, ez du bere helburuak beteko direnaren ziurtasun osoa ematen, izan ere, kontrol prozeduren aplikazioan okerrak agertzeko aukera beti egongo da. Horregatik, zuzendaritzaren ardura izango da barne kontrolak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea eta, funtsezkoa bada, egoeraren arabera aldaketak egitea.

Barne kontrolaren ezagutza bi fasetan banatzen da. Alde batetik, sistemaren aurretiko berrikuspena burutuko da. Honen helburua sozietatearen prozedurak eta metodoak ezagutzea eta ulertzea da. Fase

---

<sup>5</sup> NIA-ES 315: “Identificación y valoración de los riesgos de incorrección material mediante el conocimiento de la Entidad y de su entorno”.

hau burutzeko beharrezkoa izaten da informazioa lortzea eta, horretarako, modu egokiena sozietateako pertsonalari elkarriztetak egitea izaten da, baita agirien azterketak egitea ere. Beraz, jarraian agertzen den galdetegian, auditoretza bulegoak, Indaux S.Ako sail ezberdinetako langileei egindako elkarrizketen bidez, sozietatearen eremu garrantzitsu hauei buruzko informazioa lortu da: izakinena, diruzaintza eremuarena, bezeroena eta ondare garbiarena.

GALDERAK	ERANTZUNAK		
	BAI	EZ	IRUZKINAK
<u>Izakinen eremua</u>			
Biltegizain bakoitzaren erantzukizunak argi finkatu al dira?	x		
Egokiak al dira lapurreten aurkako neurriak?	x		
Biltegiko entrega guztiak bahar bezala onartutako eta aurrez zenbatutako eskabide edo albaranak aurkeztuz bakarrik egiten al dira?	x		
Zenbaketa fisikoak era sistematikoan egiten al dira?		x	Zenbaketa fisikoak noizean behin soilik egiten dituztela ondorioztatu da.
Biltegian dauden ondasunak modu errazean zenbatu al daitezke?		x	Biltegian ondasun asko daudenez, zaila modu errazean zenbatu al izatea, beraz, estimazio esanguratsu baten mende daude.
Gutxienez urtean behin egiten al da inbentarioa?	x		
Zehatz-mehatz egiaztatzen al dira biltegian sartzen eta biltegitik ateratzen diren produktuak?		x	Biltegian sartu eta biltegitik irteten diren ondasunen kopurua da eta hemen ere estimazio esanguratsu baten mende daude.
<b>Arriskuaren kalifikazioa: ALTUA</b>			
<b>Barne-kontrolarekiko konfiantza: AHULA</b>			
<u>Bezeroen eremua</u>			
Ba al dago bezeroen fakturazioen inguruko	x		

kontrol sistemarik?			
Jasotako konbrantzak bezeroari berari dagozkiola egiaztatzen al da?		x	Zenbait faktura beste bezero baten izenean kontabilizatu dituzte.
Diru-sarrerak fakturen edo dokumentu baliokideen bidez dokumentatzen al dira?	x		
Saldoen analisiari edo kobratzeko efektuei buruz aldizkako txostenak egiten al dira?		x	Ezohiko eragiketan daudenean soilik egiten dituzte efektuei buruzko txostenak.
Berezeroei, aldizka, beren kontuen laburpenak bidaltzen al zaizkie?	x		
<b>Arriskuaren kalifikazioa: ALTUA</b>			
<b>Barne-kontrolarekiko konfiantza: AHULA</b>			
<u>Diruzaintza eremua</u>			
Bakuko kontuak kontabilitate liburuen bidez erregistratu eta kontrolatzen al dira?	x		
Banku berdinkatzeak hilero egiten al dira?		x	2021eko urria bitartean hilero egin dira, baina azaroan eta abenduan ez dira egin.
Banku laburpenak zuzenean ematen al zaizkio kontziliazioaz arduratzen den langileari?	x		
Banku berdinkatzeak langile kualifikatu baten egiaztatzen al ditu?	x		
Ba al dago funtsak erabiltzeari buruzko politika argi eta zehatzik?		x	
Ba al dago funtsak fisikoki babesteko segurtasun neurririk?		x	
<b>Arriskuaren kalifikazioa: ALTUA</b>			
<b>Barne-kontrolarekiko konfiantza: AHULA</b>			
<u>Ondare Gabiaren eremua</u>			

Kapitalari eragiten dioten mugimendu guztiak Akziodunen batzarrak edo Zuzendaritza batzordeak onartutakoak dira?	x		
Akzioak modu izendunean igortzen al dira?	x		
Deuseztatutako tituluak ez dira erabiltzen?		x	
Kapitalaren gehikuntzak eta gutxitzeak indarrean dauden legezko arauak errespetatuz baimentzen dira?	x		
Soberakinak eta defizita ekitaldiko emaitza gisa baimenduta al daude?	x		
Kontabilitate kontu honetan erregistratutako saldoak aldizka egiaztatzen al dira?	x		
Kendu ez diren dibidenduak pasibo korrante gisa zenbatzen al dira?	x		
<b>Arriskuaren kalifikazioa: BAXUA</b>			
<b>Barne-kontrolarekiko konfiantza: SENDOA</b>			

Galdetegi pertsonalizatu horren bidez, Indaux S.Aren barne kontrolaren azterketa egitea lortu da eta lortutako emaitzen bidez, Indaux S.Aren barne-kontrolarekiko konfiantza ahula dela ondorioztatu da, beraz, jarraian egingo diren prueben izaera eta eremua zabalagoa izango da.

Bestetik, bigarren fasean, kontroleko probak burutzen dira eta, horien bidez, kontrolak diseinatu ziren bezala aplikatzen diren frogatzen da. Horretarako, kontabilitate erregistroen, dokumentuen, banku berdinkatzeen, zuzendaritzak prestatutako txostenen eta saldoen azterketak egiten dira, besteak beste. Kasu honetan, Indaux S.Aren barne-kontrola ez dela oso eraginkorra frogatu da, beraz, jarraian egin beharreko auditoretza probak kontu handiagoaz burutuko dira.

#### 4.4. AUDITORETZAREN ARRISKUAK

NIA-ES 200<sup>6</sup>aren arabera, auditoreek, urteko kontuen inguruan aldeko edo kontrako iritzia ematen dutenean, beren iritzia desegokia izan daitekela kontutan hartu behar dute. Emandako iritzia aproposa ez denean, auditoretzaren arriskua deitzen zaio. Horregatik, NIA-ES 200ek, auditoreei, iritzi oker bat ez emateko, arrazoizko segurtasun bat izatea eskatzen die, modu egokian eta arrisku maila baxuan lan egiteko.

Auditoretzaren arriskuak bi motatakoak izan daitezke; batetik, akats materialen arriskua (berezko arriskua eta kontroleko arriskua) eta, bestetik, antzemateko arriskua. Lehenengoa erakundearen erantzukizuna da, baina auditoreak baloratu egin behar du; bigarrena, berriz, auditorearen kontrolpean eta erantzukizunpean dago.

- Akats materialen arriskua: auditoretza egin aurretik finantza egoerek akats esanguratsuak izateko duten arriskua. Arrisku mota hau bi zatitan banatzen da:
  - *Berezko arriskua*: enpresaren barnean egin beharreko kontrolak kontuan ez hartzeagatik sozietatearen jardueran sor daiteken berezko arriskua. Barne zein kanpo faktoreen ondorioz sor daiteke eta enpresaren errentagarritasunari eta kapitalari eragin diezaieke. Auditatutako erakundearen administrazioa arduratzen da arrisku mota horrek finantza-egoeretan izan ditzakeen ondorioak murrizteko beharrezkoak diren prozedurak diseinatzeaz eta aplikatzeaz.

Indaux S.Aren kasua aztertuta, hauek dira aurkitu diren berezko arrisku nagusiak:

- Garraio gastuak direla medio, Euskal Herritik kanpo kontsumitzaile berriak bilatzeak entitatearen kostuak igo ditu.
- Lehiakide asko izateak I+Gren sailean inbertsioak egitea dakar eta horrek kapital bolumen handiak behar izatea suposatzen du.
- Sail jakin batzuen arteko komunikazio eta informazio faltak langileen artean gaixki ulertzeak eragin ditu.

Bestalde, zenbait arrisku atzeman dira ondorengo eremuetan:

---

<sup>6</sup> NIA-ES 200: “Objetivos globales del auditor independiente y realización de la auditoría de conformidad con las normas internacionales de auditoría”.

- Izakinen eremuan:
  - Biltegian produktu asko daudenez, zaila da produkuen kopuru zehatza zein den jakitea, beraz, estimazio esanguratsu baten mende daude.
  - Biltegiko stock-a eguneratu gabe dago. Horrek lehengaien erosketetan edo hornikuntzetan eragina izan dezake.
  - Atzerriko herrialdeetan izakinak daude eta horiek atzerri monetan balioztatzen dira.
  - Mota askotako produktuak daude biltegian eta, horren ondorioz, inbentarioaren antolaketa zailagoa da.
  
- Diruzaintzaren eremuan:
  - Erakundeak zenbait banku sukurtsaletan du dirua gordeta eta, horrek, zaildu egiten du ordainketa eta kobru batzuen kudeaketa.
  - Bezero asko dituen enpresa denez, zaila da kobrantza eta ordainketa guztiak kontrolatzea.
  - Bere produktuak egiteko erakundeak zenbait inportazio egiten ditu eta, beraz, eragiketa batzuk erregistratzerako garaian, atzerriko monetako kanbio tasa kontuan hartu behar da.

- *Kontrolako arriskua*: transakzio mota batean, kontabilitate saldo batean edo bestelako informazio batean egon daitezken akatsak erakundearen barne-kontrolako sistemak behar bezala prebenitu, detektatu eta zuzentzen ez dituenean sortzen den arriskua da. Kontrolako arriskua sozietateko barne kontrolaren diseinuaren eta antolakuntzaren eraginkortasunaren araberakoa da. Horren helburua erakundearen finantza egoerak prestatzeko garrantzitsuak diren helburuak lortzea mehatxatzen duten arriskuei erantzutea da. Barne kontrola ondo diseinatuta egon arren, egoera finantzairioko zuzengabekeria materialen arriskuak guztiz ezabatzea ezinezkoa da. Hain zuzen ere, giza akatsak izateko aukera beti egongo da eta horrek kontrol arriskuren bat beti egotea suposatzen du.

Indaux S.Aren barne kontroleko sistemak aztertuta eta aurreko urteetako auditoretzaren iritzia kontutan hartuta, sozietatearen barne kontrola onargarria dela ondorioztatu da, zenbait arlotan gabezia batzuk izan arren.

- Antzemateko arriskua: auditoreek ezarritako prozedurak akatsak detektatzeko gai ez denean sortzen den arriskua da. Auditorea da arrisku honen erantzulea eta berak ezarriko du onartuko duen antzemateko arrisku minimoa, gutxieneko horretan finantza egoerek ez dutela errore garrantzitsurik izango bermatuz.

Beraz, antzemateko arriskua murrizteko, Gayca Auditores E.M.Sk langile kualifikatuak eta esperientziadunak izendatu ditu auditoretza hau burutzeko. Gainera, auditoretza taldeko kide bakoitzak egindako lana gainbegiratuko da eta, beharrezkoa den kasuetan, gaien adituak diren pertsonen laguntzara joko dute.

#### **4.5. EGIN BEHARREKO AUDITORETZA PROBAK ETA EBIDENTZIA**

NIA-ES 500<sup>7</sup>en arabera, auditorearen erantzukizuna auditoretzaren ebidentzia egokia lortzeko prozedurak diseinatzea eta aplikatzea da, finantza egoeretako datuei buruzko arrazoizko iritzia lortzeko eta iritzi egokia adierazteko. Auditoreek hartutako erabakiak oso garrantzitsuak izaten dira eta, horregatik, urteko kontuetan azaltzen diren datuak denboran eta edukian behar bezala egokituta daudela egiaztatu behar da.

Bestalde, NIA-ES 300<sup>8</sup>ek dion bezala, auditoreak auditoretza programa estandarrak edo auditoretzaren amaiera egiaztapenen zerrenda egokituak erabil ditzake. Auditoretza programa auditoretza taldeak auditoretza prozesu osoan egin beharreko lanak jasotzen dituen dokumentua da, lantaldeko kide bakoitzari lanerako plan bat emateko helburuarekin idatzia. Era horretara, kide bakoitzaren lana eta lan hori egiteko unea zehaztuko dira.

Auditoretzaren ebidentzia benetako froga eta betetze proben bidez lortzen da. Indaux S.Aren kasuan, auditoretza proba horiek arrisku gehiena aurkitu diren eremuetan egingo dira: izakinetan, bezeroetan, diruzaintzan eta ondare garbian.

---

<sup>7</sup> NIA-ES 500: “Evidencia de auditoría”.

<sup>8</sup> NIA-ES 300: “Planificación de la auditoría de estados financieros”



#### 4.5.1 IZAKINEN EREMUA

Izakinak enpresa batek bere jarduera ekonomikoa eta ekoizpena garatzeko dituen ondasunak dira eta, ondasun horiek, bezeroei saltzeko prestatzen dira. Material, osagai, artikulu eta produktu horiek, urtea bete aurretik kontsumitu, berritu eta saltzen dira eta, horregatik, aktibo korrontean kokatzen dira.

Indaux S.Aak, enpresa industrialala denez, hiru izakin mota hauek ditu: lehengaiak, bideango produktuak eta produktu bukatuak. Ondorengo taulan, 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko izakinen saldoak agertzen dira:

16.TAULA: Izakinen banaketa

<b>IZAKINAK</b>	<b>2021/12/31ko SALDOAK</b>
Lehengaiak	2.419.000,36
Bideango produktua	5.889.443,17
Produktu bukatuak	6.359.075,78
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.667.519,31</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

Izakinak aldagai garrantzitsuak dira Indaux S.Aren jardueran. Hori kontuan izanik eta, izakinen eremuan aurkitutako zehaztapen faltengatik, zenbait proba gauzatuko dira 2021eko abenduaren 31n.

Alde batetik, Indaux S.Ak emandako datuetatik, lehengaien, bideango produktuen eta produktu bukatuen kostua eta unitate kopurua aztertuko dira. Azterketa horren bidez, enpresak erregistratutako saldoak gainbaloratuta edo gutxietsita dauden egiaztatuko da. Beraz, jarraian agertzen diren prueben bidez, Indaux S.Aren izakinen eremua aztertuko da.

#### 4.5.1.1 IZAKINEN EREMUAN EGINDAKO AUDITORETZA PROBAK

1. Inbentario fisikoa eta kostua egiaztatzea:

- Lehengaiak

KONTZEPTUA	E/A			A/A			DESBERDINTASUNAK
	Kopurua (kg)	Prezioa	Guztira	Kopurua	Prezioa	Guztira	
Aluminioa (kg)	500.001,43	2,00	1.000.002,86	500.001,43	2,00	1.000.002,86	0,00
Kobrea (kg)	80.615,00	6,50	523.997,50	80.615,00	6,50	523.997,50	0,00
Eztainua (kg)	1.400,00	100,00	140.000,00	1.400,00	100,00	140.000,00	0,00
Beruna (kg)	250.000,00	3,00	750.000,00	250.000,00	3,00	750.000,00	0,00
Plastikoa (kg)	1.000,00	5,00	5.000,00	1.000,00	5,00	5.000,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>2.419.000,36</b>			<b>2.419.000,36</b>	<b>0,00</b>

- Bideango produktuak

KONTZEPTUA	E/A			A/A			DESBERDINTASUNAK	Oharrak
	Kopurua (unitatea)	Prezioa	Guztira	Kopurua	Prezioa	Guztira		
GACELA	100.000,00	20,00	2.000.000,00	100.000,00	20,00	2.000.000,00	0,00	
MESUCO 14	1.000.000,00	2,50	2.500.000,00	980.000,00	2,50	2.450.000,00	50.000,00	1
DELTA	50.000,00	3,00	150.000,00	50.000,00	2,50	125.000,00	25.000,00	2
TRASER-6	499.745,00	2,18	1.089.444,10	499.745,00	2,18	1.089.444,10	0,00	
IMPULSE	50.000,00	3,00	200.000,00	50.000,00	3,00	150.000,00	50.000,00	3
<b>GUZTIRA</b>			<b>5.889.443,17</b>			<b>5.814.444,10</b>	<b>125.000,00</b>	
<b>Benetako batura</b>			<b>5.939.444,10</b>					(1. idazp.)

- (1) Gainbaloraketa: Inbentariotik 50.000€ kendu behar dira.
- (2) Gainbaloraketa: Inbentariotik 25.000€ kendu behar dira.
- (3) Akats aritmetikoa baten ondorioz, 50.000€ kendu behar dira.

**1.idazpena:** bideango produktuen gainbaloraketaren ondorioz, 125.000€ kendu behar dira inbentariotik. (V.eranskinean)

- Produktu bukatuak

KONTZEPTUA	E/A			A/A			DESBERDINTASUNAK	Oharrak
	Kopurua	Prezioa	Guztira	Kopurua	Prezioa	Guztira		
GACELA	120.000,00	20,00	2.400.000,00	115.000,00	20,00	2.300.000,00	100.000,00	4
IMPULSE	100.000,00	3,00	300.000,00	100.000,00	2,50	250.000,00	50.000,00	5
SUPRA	26.363,00	25,00	659.075,00	26.363,00	25,00	659.075,00	0,00	
MASTER LUX	2.000.000,00	1,50	3.000.000,00	2.000.000,00	1,50	3.000.000,00	0,00	
<b>GUZTIRA</b>			<b>6.359.075,00</b>			<b>6.209.075,00</b>	<b>150.000,00</b>	(2. idazp.)

(4) Gainbaloraketa: Inbentariotik 100.000€ kendu behar dira.

(5) Gainbaloraketa: Inbentarioti 50.000€ kendu behar dira.

**2.idazpena:** produktu bukatuen gainbaloraketaren ondorioz, 150.000€ kendu behar dira inbentariotik. (V.eranskinean)

2. Eragiketen banaketa: izakinen sarrerak eta irteerak behar bezala kontabilizatu diren egiaztatzeko egindako proba. Horrez gain, inbentarioa ere begiratuko da.

- Lehengaien erosketen banaketa

KONTZEPTUA	SORTZAPENA	BILTEGIRATZE DATA	EROSKETEN KONTABILIZAZIO DATA	DOIKUNTZAK		IRUZKINAK
				EROSKETAK	INBENTARIOA	
50.000 kg aluminio	Abendua	2021/12/23	2022/01/14	100.000	---	Doikuntza: 2021ean jasotako erosketak, beraz, 2021.urtean kontabilizatu behar dira. (3.idazp.)
10.000 kg plastiko	Abendua	2021/12/5	2021/12/21	---	---	---
15.000 kg berun	Urtarrila	2022/01/03	2021/12/31	-45.000	---	Doikuntza: 2022an jasotako erosketak, beraz, 2022.urtean kontabilizatu behar dira. (4.idazp.)
<b>GUZTIRA</b>				<b>55.000</b>	<b>---</b>	<b>Beraz, 2021eko ekitaldiari 55.000 gehitu behar zaizkio guztira.</b>

- Produktu bukatuen salmenten banaketa

KONTZEPTUA	SORTZAPENA	IRTEERA DATA	SALEMENTEN KONTABILIZAZIO DATA	DOIKUNTZAK		IRUZKINAK
				SALMENTAK	INBENTARIOA	
15.000 IMPULSE	Abendua	2021/12/15	2022/01/03	37.500	---	Doikuntza: salmenta 2021ean egin da, beraz, 2021.urtean kontabilizatu behar da. (5.idazp.)
30.000 MASTER LUX	Urtarrila	2022/01/08	2022/01/17	---	---	---
500 GACELA	Abendua (Kontsignazioa)	2021/12/20	2021/12/22	-75.000	10.000	Enpresak salmentarik egin ez duen arren, 2021eko abenduan salmenta gisa kontabilizatu ditu 75.000€. Beraz, salmenta hori ezabatu egin behar da (6.idazp.). Bestalde, produktu horiek inbentarioan sartu behar dira oraindik enpresaren jabetzakoak direlako: 500 unitate * 20€ kostua= 10.000 (7.idazp.).
<b>GUZTIRA</b>				<b>-37.500</b>	<b>10.000</b>	<b>Beraz, 2021eko ekitaldiari salmentetan 37.500€ kendu behar zaizkio. Bestalde, 10.000€ gehiago sartu behar dira inbentarioan kontsignazioaren ondorioz.</b>

\*Idazpenak V.eranskinean agertzen dira\*.

Inbentario fisikoa eta kostua egiaztatzean, lehengaieietan ez dela inongo arazorik aurkitu ondorioztatu da..

Bideango produktuen kasuan, akats aritmetiko baten erruz, bideango produktuen kostua gutxietsi da, hau da, materialen zenbatekoa oker egin da eta behar baino unitate gutxiago kontatu dira. Bestalde, auditorearen arabera, Indaux S.Ak errealitatean dauden unitate kopurua baino gehiago erregistratu ditu, beraz, bideango produktuen gainbaloraketa egon da, baita kostuena ere.

Azkenik, produktu bukatuei dagokienez, unitateen zenbaketan akatsak izateaz gain, unitateen kostuan ere okerrak aurkitu dira eta, ondorioz, produktu bukatuen gainbaloraketa eman da.

Beste aldetik, izakinen sarrerak eta irteerak behar bezala kontabilizatu diren egiaztatzeko erosketen eta salmenten banaketa egin da. Bertan, sortzapen data kontuan hartu ez duten zenbait eragiketa identifikatu dira.

Beraz, aurretik aipatutako akatsak zuzentzeko auditoreak V.eranskinean agertzen diren idazpenak proposatu ditu.

#### 4.5.2 DIRUZAINZTA EREMUA

Diruzaintzaren eremua, eskudiruak eta bestelako aktibo likidoek osatzen dute. Jarraian agertzen den taulan, 2021eko abenduaren 31ean Indaux S.Aak diruzaintzan duen saldoa agertzen da:

17.TAULA: Diruzaintzaren banaketa

<b>ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDOAK</b>	<b>2021/12/31eko saldoa</b>
Bankua	7.361.511,59
Kutxa	2.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.363.511,59</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

Kutxan dagoen saldoa, oso baxua da bankuan dagoen zenbatekoarekin alderatuta, beraz, Gayca Auditores E.M.Sk ez du beharrezkoa ikusten kutxako kontaketa egitea. Bestalde, Indaux S.A fakturazio handia duen enpresa izanik, zenbait banku sukurtsalekin egiten du lan: Laboral Kutxa, Kutxabank eta BBVA. Dena den, Laboral Kutxan egiten ditu kobru eta ordainketa gehienak.

Ondorengo taulan banku bakoitzean duen saldoa azaltzen da:

18.TAULA: Banku sukurtsal bakoitzaren saldoa

Laboral Kutxa	4.765.422,59
Kutxabank	1.354.988,00
BBVA	1.241.101,00
<b>Bankuan dagoen zenbatekoa</b>	<b>7.361.511,59</b>

Iturria: Norberak egina

Kutxabank eta BBVAren kasuan, banku berdinkatzeak eguneratuta daudela eta bankuan zein enpresan kontabilizatuta dauden saldoak bat datozela ikusi da.

Laboral kutxaren kasuan ordea, azken banku berdinkatzea urrian egin zela egiaztatu da; beraz, banku zirkulazioaren bidez (III.eranskina), Indaux S.Ak, Laboral Kutxari, Gayca Auditores E.M.Sko lan taldeari kontu korrontean izandako mugimendu guztien berri emateko eskatu dio. Era horretara, 2021eko abenduaren 31an amaitutako ekitaldiko kontuak berrikusiko dira eta banku kontziliazioa egiteko beharra dagoen ala ez aztertu.

Gayca Auditores E.M.Sk honako datu hauek bildu ditu banku berdinkatzeari buruzko ebidentzia egokia lortzeko:

- 2021eko azaroko eta abenduko banku-laburpenak:

DATA	BALIO-DATA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	SALDOA
2021/11/1		Hasierako saldoa		-6.233.022,59
2021/11/3	2021/11/4	Elektrizitatearen ordainagiria	3.000,00	-6.230.022,59
2021/11/5	2021/11/6	Uraren ordainagiria	500,00	-6.229.522,59
2021/11/7	2021/11/8	Telefonoaren eta internetaren ordainagiria	800,00	-6.228.722,59
2021/11/10	2021/11/11	Kontuaren hileko komisioa	100,00	-6.228.622,59
2021/11/10	2021/11/11	Lehengaien erosketa (600)	1.500,00	-6.227.122,59
2021/11/12	2021/11/13	Mailegua	-57.600,00	-6.284.722,59
2021/11/20	2021/11/21	Txekearen ordainketa (700)	200.000,00	-6.084.722,59
2021/11/21	2021/11/22	Transferentzia - Ander Gonzalez	-2.000,00	-6.086.722,59
2021/11/23	2021/11/24	Salmenta (512)	-4.350,00	-6.091.072,59
2021/11/24	2021/11/25	Transferentzia - Ane Mendizabal	2.300,00	-6.088.772,59
2021/11/25	2021/11/26	Txekearen ordainketa (750)	7.000,00	-6.081.772,59
2021/11/26	2021/11/27	Lehengaien erosketa (601)	8.790,00	-6.072.982,59
2021/11/27	2021/11/28	Soldaten ordainketa	350.000,00	-5.722.982,59
2021/11/27	2021/11/28	Erregimen Orokorra	238.000,00	-5.484.982,59
<b>2021/12/3</b>				
2021/12/3	2021/12/4	Elektrizitatearen ordainagiria	3.000,00	-5.481.982,59
2021/12/5	2021/12/6	Uraren ordainagiria	500,00	-5.481.482,59
2021/12/7	2021/12/8	Telefonoaren eta internetaren ordainagiria	800,00	-5.480.682,59
2021/12/10	2021/12/11	Kontuaren hileko komisioa	50,00	-5.480.632,59
2021/12/10	2021/12/11	Transferentzia - Mikel Martinez	-2.000,00	-5.482.632,59
2021/12/11	2021/12/12	Txekearen ordainketa (749)	50.000,00	-5.432.632,59
2021/12/12	2021/12/13	Dirulaguntza I+G	-100.000,00	-5.532.632,59
2021/12/13	2021/12/14	Lehengaien erosketa (602)	25.000,00	-5.507.632,59
2021/12/13	2021/12/14	Txekearen ordainketa (765)	20.000,00	-5.487.632,59
2021/12/20	2021/12/21	Transferentzia - Laida Martin	10.000,00	-5.477.632,59
2021/12/23	2021/12/23	Transferentzia - Enara Beloki	5.000,00	-5.472.632,59
2021/12/27	2021/12/28	Soldaten ordainketa	350.000,00	-5.122.632,59
2021/12/27	2021/12/28	Erregimen Orokorra	238.000,00	-4.884.632,59

- Enpresaren arabera, 2021eko abenduko eta azaroko banku erregistroak:

DATA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	SALDOA
2021/11/1	Hasierako saldoa		6.233.022,59
2021/11/2	Elektrizitatearen ordainagiria	-3.000,00	6.230.022,59
2021/11/4	Uraren ordainagiria	-500,00	6.229.522,59
2021/11/6	Telefonoaren eta internetaren ordainagiria	-800,00	6.228.722,59
			6.228.722,59
2021/11/9	Kontuaren hileko komisioa	-100,00	6.228.622,59
2021/11/9	Lehengaien erosketa (600)	-1.500,00	6.227.122,59
2021/11/10	Transferentzia - Mikel Martinez	2.000,00	6.229.122,59
2021/11/10	Txekearen ordainketa (749)	-50.000,00	6.179.122,59
2021/11/11	Mailegua	57.600,00	6.236.722,59
2021/11/20	Salmenta (512)	4.350,00	6.241.072,59
2021/11/22	Transferentzia - Ane Mendizabal	-2.300,00	6.238.772,59
2021/11/24	Txekearen ordainketa (750)	-7.000,00	6.231.772,59
2021/11/25	Lehengaien erosketa (601)	-8.790,00	6.222.982,59
2021/11/26	Soldaten ordainketa	-350.000,00	5.872.982,59
2021/11/26	Erregimen Orokorra	-238.000,00	5.634.982,59
2021/12/2	Elektrizitatearen ordainagiria	-3.000,00	5.631.982,59
2021/12/4	Uraren ordainagiria	-500,00	5.631.482,59
2021/12/6	Telefonoaren eta internetaren ordainagiria	-800,00	5.630.682,59
			5.630.682,59
2021/12/9	Kontuaren hileko komisioa	-50,00	5.630.632,59
2021/12/10	Txekearen ordainketa (700)	-200.000,00	5.430.632,59
2021/12/10	Transferentzia - Ander Gonzalez	2.000,00	5.432.632,59
2021/12/11	Salmenta (512)	4.350,00	5.436.982,59
2021/12/12	Lehengaien erosketa (602)	-25.000,00	5.411.982,59
2021/12/12	Txekearen ordainketa (765)	-20.000,00	5.391.982,59
2021/12/19	Transferentzia - Laida Martin	-10.000,00	5.381.982,59
2021/12/22	Transferentzia - Enara Beloki	-5.000,00	5.376.982,59
2021/12/26	Soldaten ordainketa	-350.000,00	5.026.982,59
2021/12/26	Erregimen Orokorra	-238.000,00	4.788.982,59
2021/12/30	Txekearen ordainketa (760)	-23.560,00	4.765.422,59



#### 4.5.2.1 BANKU BERDINKATZEA

Banku laburpenak aztertzerakoan, enpresako eta bankuko saldoak bat ez datozela ikusi da, beraz, 2022ko urtarrilaren 1ean banku berdinkatzea egingo da, era horretara, banku laburpenaren eta enpresaren saldoen egiaztapena eginez. Laboral Kutxak eskainitako informazioa aztertu ondoren, azaroan bi saldoak bat datozela egiaztatu da, doikuntzarik egiteko beharrik gabe. Baina abenduan berriz, bankuak Indaux S.Aren kontabilitate liburuan agertzen ez diren zenbait eragiketa erregistratu dituela ondorioztatu da. Aldi berean, enpresak ere baditu bankuan erregistratu ez diren zenbait eragiketa. Beraz, saldoak baliokideak izateko zenbait doikuntza egingo dira jarrian agertzen diren tauletan.

Banku berdinkatzea behar bezala burutzeko informazioa era honetara banatu da:

- Bankuak erregistratu dituen baina Indaux S.A kontabilizatu ez dituen ordainketak.
- Bankuak erregistratutako kobruak baina Indaux S.Ak kontabilizatu gabeak.
- Indaux S.Ak kontabilizatu dituen baina bankuan erregistratu ez dituen ordainketak.
- Indaux S.Ak kontabilizatutako kobruak baina bankuak erregistratu gabeak.

#### Banku berdinkatzea

<b>2021/12/31ko bankuko saldoa -</b>
Bankuak erregistratu dituen baina Indaux S.A kontabilizatu ez dituen ordainketak:
Bankuak erregistratutako kobruak baina Indaux S.Ak kontabilizatu gabeak:  - Dirulaguntza I+G = 100.000€ (1)
Indaux S.Ak kontabilizatu dituen baina bankuan erregistratu ez dituen ordainketak:  - Txekearen ordainketa (760) = 23.560€ (2)
Indaux S.Ak kontabilizatutako kobruak baina bankuak erregistratu gabeak:  - Salmenta (512) = 4.350€ (3)
<b><u>2021/12/31n enpresaren arabera bankuan dagoen saldoa 4.765.442,59€</u></b>

- (1) 2021eko abenduaren 13an, Eusko Jaurlaritzak I+G inbertitzeko emandako dirulaguntza erregistratu da Indaux S.Aren bankuko mugimenduetan, baina sozietateak banku berdinkatzea egin ondoren kontabilizatu du, hau da, 2022ko urtarrilaren 9an. Beraz, dirulaguntza hori 2021eko abenduaren 31n enpresaren arabera bankuan dagoen saldoari doitu behar zaio. (8.idazp.)
- (2) 2021eko abenduaren 30ean Indaux S.Ak ordainketa bat kontabilizatu du. Ondainketa hori bankuan 2022ko urtarrilaren 8an erregistratu da, hau da, kontziliazioa egin ondoren.
- (3) Indaux S.Ak salmenta bat, salmenta (512) alegia, bi aldiz kontabilizatu du, bat 2021eko azaroaren 20an eta, bestea, 2021eko abenduaren 11n. Beraz, 2021eko abenduaren 31n sozietatearen arabera bankuan dagoen saldoan zenbateko hori zuzendu behar da (9.idazp.)

Doikuntzak:

2021/12/31ko bankuko saldoa = - 4.884.632,59€ + Txekearen ordainketa (760) = + 23.560€ <hr style="border-top: 1px dashed black;"/> <p style="text-align: center;"><b>- 4.861.072,59€</b></p>
--

2021/12/31n enpresaren arabera bankuan dagoen saldoa = 4.765.422,59€ + Dirulaguntza I+G = + 100.000€ (8.idazp.) - Salmenta (512) = - 4.350€ (9.idazp.) <hr style="border-top: 1px dashed black;"/> <p style="text-align: center;"><b>4.861.072,59€</b></p>
---

Banaketa hori abiapuntu gisa hartuta, Indaux S.Ak zein bankuak erregistratu ez dituzten eragiketak ezagutu dira. Behin horien berri izanda, mugimendu guztiak behar bezala kontabilizatuta egoteko zenbait idazpen egingo dira (V.eranskina). Etorkizun batean horrelako arazorik ez izateko, Gayca E.M.Sk Indaux S.Ari banku berdinkatzeak hilero egitea gomendatzen dio.

#### 4.5.3 BEZEROEN EREMUA

Bezeroak, ordainsari edo prezio baten truke profesional edo enpresa baten zerbitzuak kontratatu edo haien produktuak erosten dituztenak dira. Indaux S.Aren kasuan, bezeroak aktiboko aldagai garrantzitsuak dira, aktibo osoaren % 20,94ko portzentaia hartzen dutelako. Bezeroen zenbateko bi osagaiek osatzen dute; batetik, bezeroak, salmentagatik eta zerbitzu-emateengatik eta, bestetik, bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak. Ondorengo taulan, 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko bezeroen saldoak agertzen dira:

19.TAULA: Bezeroen banaketa

<b>BEZEROAK</b>	<b>2021/12/31ko saldoa</b>
Bezeroak, salmentagatik eta zerbitzu-emateengatik	9.559.711,54
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	3.751.740,93
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.311.452,47</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

Bezero horien artean Leroy Merlin da garrantzitsuenetako bat. 2021eko azken bi hilabeteetan ezohiko eragiketa batzuk antzeman dira bezero horrekin eta Indaux S.Ak, beraiekiko duen saldoa egiaztatzeko, bezeroen zirkularizazioa burutuko du IV.eranskinean. Indaux S.Aren ustetan, Leroy Merline dagokion saldoa 347.247,01€tako da, beraz, zirkularizazioaren bitartez, saldo horren zenbatekoa egiaztatuko da egindako eragiketa guztiak kontuan hartuz. Leroy Merlinek auditoreei zuzenean bidalitako zirkularizazioaren erantzunean, bi saldoek, hau da, sozietatearen ustez Leroy Merlinek duen saldoak eta bezeroaren benetako saldoak, ez dutela bat egiten egiaztatu da. Leroy Merlinek duen benetako saldoa 319.908,73€koa da.

## 20.TAULA: Bezeroen arteko diferentzia

Enpresaren saldoa	347.247,01€
Leroy Merlinen saldoa	319.908,73€
<b>DIFERENTZIA</b>	<b>27.338,28€</b>

Iturria: Norberak egina

Jarraian agertzen den 21.taula honetan, Leroy Merlinek auditoreari zuzenean bidalitako erantzuna agertzen da:

## 21.TAULA: Bezeroaren mugimenduak

Data	Faktura zenbakia	Muga eguna	Zenbatekoa
2021/10/31	20210321	2021/12/20	181,50
2021/10/31	20210322	2021/12/20	5.089,26
2021/10/31	20210323	2021/12/20	1.781,12
2021/11/20	20210330	2022/01/20	9.663,06
2021/11/20	20210331	2022/01/20	2.075,15
2021/11/20	20210332	2022/01/20	544,50
2021/10/20	20210334	2021/12/20	1.805,32
2021/10/20	20210335	2021/12/20	1.142,24
2021/10/20	20210337	2021/12/20	4.216,85
2021/10/31	20210338	2021/12/20	4.216,85
2021/10/20	20210339	2021/12/20	15.761,46
2021/10/20	20210340	2021/12/20	3.649,36
2021/10/20	20210341	2021/12/20	12.516,24
2021/10/20	20210342	2021/12/20	2.672,89

2021/10/20	20210343	2021/12/20	11.812,02
2021/10/20	20210344	2021/12/20	14.638,58
2021/10/20	20210345	2021/12/20	12.644,50
2021/10/20	20210346	2021/12/20	4.795,23
2021/10/20	20210347	2021/12/20	5.557,53
2021/10/31	20210348	2021/12/20	10.507,64
2021/10/31	20210349	2021/12/20	4.172,08
2021/10/31	20210350	2021/12/20	2.102,98
2021/11/20	20210356	2022/01/20	5.176,38
2021/11/20	20210357	2022/01/20	1.543,96
2021/11/20	20210359	2022/01/20	2.086,04
2021/11/20	20210360	2022/01/20	3.112,12
2021/11/20	20210361	2022/01/20	3.475,12
2021/11/20	20210362	2022/01/20	15.749,36
2021/11/20	20210363	2022/01/20	11.054,56
2021/11/20	20210364	2022/01/20	7.319,29
2021/11/20	20210365	2022/01/20	3.968,80
2021/11/20	20210366	2022/01/20	10.115,60
2021/11/30	20210372	2022/01/20	10.352,76
2021/11/30	20210373	2022/01/20	3.009,27
2021/11/30	20210374	2022/01/20	1.235,41
2021/11/30	20210375	2022/01/20	5.970,14

2021/11/30	20210376	2022/01/20	18.388,37
2021/12/20	20210386	2022/02/20	1.543,96
2021/12/20	20210387	2022/02/20	28.896,01
2021/12/20	20210388	2022/02/20	4.475,79
2021/12/20	20210389	2022/02/20	9.590,46
2021/12/20	20210390	2022/02/20	10.115,60
2021/12/20	20210391	2022/02/20	6.308,94
2021/12/20	20210392	2022/02/20	1.817,42
2021/12/23	20210400	2022/02/20	7.880,73
2021/12/23	20210401	2022/02/20	5.527,28
2021/12/23	20210402	2022/02/20	72,60
2021/12/23	20210403	2022/02/20	145,20
2021/12/23	20210404	2022/02/20	2.528,90
2021/12/23	20210405	2022/02/20	399,30
2021/12/23	20210406	2022/02/20	2.588,19
2021/12/23	20210407	2022/02/20	1.436,27
2021/12/23	20210408	2022/02/20	2.478,08

Iturria: Norberak egina

Indaux S.Ak beste bezero batzuen fakturak erregistratu ditu Leroy Merlinen zenbatekoan, 20210358 eta 20210385 fakturak, alegia. Beraz, bi faktura horien zenbatekoa, 27.338,28€, dagozkion bezeroen kontuan kontabilizatu behar dira. Horregatik, auditorek proposatutako V.eranskineko 10.idazpenean zenbateko hori zuzenduko da.

#### 4.5.4 ONDARE GARBIAREN EREMUA

Aurretik egindako analisi ekonomiko-finantzarioan Indaux S.A ondare garbiaren bidez finantzatzen dela ikusi da. Kasu honetan ondare garbia era honetara banatuta dago:

22.TAULA: Ondare Garbiaren banaketa

<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>38.091.518,18</b>
<b>A-1) Fondo propioak</b>	<b>38.030.058,33</b>
- Kapitala	1.334.220,00
- Erreserbak	34.617.968,11
- Bazkideen bestelako ekarpenak	1.500.000,00
- Ekitaldiko emaitza	577.870,22
<b>A-3) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>61.459,85</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

Taulan ikus daitekeen moduan ondare garbiaren barnean fondo propioak nabarmentzen dira, beraz, zenbateko horretan eragina duten aldagaiak aztertuko dira jarraian.

Lehenik eta behin, kapitalaren zenbateko azken hiru urteetan, hau da, 2019, 2020 eta 2021ean, berdina izan da. Hori horrela izanik, ez da kapital zabalkuntza edo gutxitzerik egon. 2020an egindako auditoretzan kapitalaren zenbateko azertu ondoren dena ongi dagoela ondoriotatu zen eta, 2021ean, zenbateko hori berdina denez, ez da kapitalaren azterketarik egingo.

Bestetik, erreserbak dira ondare garbiko aldagai garrantzitsuenak eta era honetara banatzen dira:

23.TAULA: Erreserben banaketa

Legezko eta estatuzkoak	266.849,37
Beste erreserba batzuk	34.351.118,74
<b>Erreserbak</b>	<b>34.617.968,11</b>

Iturria: Norberak egina, urteko kontuetako datuetatik abiatuz

- Erreserba legalak eta estatuzkoak: LSCren arabera, sozietate bakoitzak aurreko urteko ekitaldiko emaitzaren % 20a erreserba legeletara bideratu behar du. Portzentai hori lortzen ez bada ordea, aurreko urteko ekitaldiko emaitzaren %10a bideratu beharko da erreserba legeletara. Beraz, Indaux S.Aren kasuan, 57.864,4€ erreserba legeletara bideratu dira eta gainotzekoa, hau da, 208.984,97€, estatuzko erreserbetara.

- Beste erreserba batzuk: erreserben zenbateko handiena hauei dagokie, horien zenbatekoa 34.351.118,74€koa izanik.

Bazkideen bestelako ekarpenei dagokionez, 2020ko zenbateko berdina mantentzen da, bere zenbateko 1.500.000€koa izanik.

Azkenik, ekiltadiko ematzari dagokionez, ekitaldiko emaitza positiboa izan dela ikusi da, hau da, Indaux S.Aak 577.870,22€ko irabaziak izan ditu. Kasu honetan, aurretik galdu irabaziaren analisisan aipatu den bezala, 2020eko ekitaldiarekin alderatuta, % 50 hazi da ekitaldiko emaitza.

Gainera, sozietatearen gorabeheren berri izateko Indaux S.Aaren aktak berrikusi dira. Hori guztia esanda, auditoreak, aurreko probek, hau da izakin eta diruzaintzaren probek, ondare garbian eragin dituzten aldaketez gain, ez duela beste doikuntzarik egin behar ondorioztatu du.

## **5.AITORPEN GUTUNA ETA AUDITORETZA TXOSTENA**

Jarraian, aitorpen gutunari eta auditoretza txostenari buruzko informazioa agertuko da. Aitorpen gutunaren bidez, auditoretza prozesuan zehar erabilitako informazioaren fidagarritasuna bermatzen du enpresako zuzendariak. Bestalde, auditoretza txostenarekin, auditoreak finantza egoerei buruzko bere iritzia emango du.

### **5.1 AITORPEN GUTUNA**

NIA-ES 580<sup>9</sup>ak dioenez, aitorpen gutuna enpresako zuzendaritzak sinatutako dokumentua da eta, dokumentu horren bitartez, auditoreak gai jakin batzuk berresteko eta beste auditoretza ebidentzia bat jasateko aukera du. Idatzizko aitorpen honek ez ditu finantza egoerak kontutan hartzen, ezta horietan jasotako baieztapenak edo oinarritzat dituzten liburu eta erregistroak ere.

Auditoreak idatzizko adierazpenak finantza egoerei eta beste gaiei buruzko ezagutzak dituzten zuzendaritzako kideei eskatuko dizkie. Horrela, enpresako zuzendaritzak idatziz adieraziko du finantza egoerak prestatzeko ardura bete duela eta aplikatu beharreko finantza informazioaren esparruarekin bat datorrela. Auditoreak, zuzendaritzari, idatzizko adierazpen hauek emateko eskatuko dio:

- Auditoretza enkarguaren baldintzetan adostutakoaren arabera, auditoreari beharrezko informazio eta sarbide guztiak emango dizkiola.
- Transakzio guztiak erregistratuta eta finantza egoeretan islatuta daudela.

---

<sup>9</sup> NIA-ES 580: “Manifestaciones escritas”.



Gutun hau auditoretza prozesuko froga gehigarri bat da. Horren bidez, auditoreek ebidentzia handiagoa lortzen dute beren lanetan. NIA-ES 580aren arabera, aitorpen honen bidez lortutako ebidentzia auditorearen lan paperetan jaso behar da idatzizko aitorpenaren justifikazio gisa.

Hori horrela izanda eta aipatutako arauetan oinarrituta, VIII.eranskinean Indaux S.A erakundearen aitorpen gutuna azaltzen da.

## **5.2 AUDITORETZA TXOSTENA**

NIA-ES 700<sup>10</sup>aren arabera, auditoretza txostenaren bidez, auditoreak finantza egoerei buruzko iritzia osatuko du. Era horretara, finantza egoeren alderdi material guztiak aplikagarria den finantza informazioaren esparruaren arabera prestatu direla jakingo da. Iritzi hori osatzeko, auditoreak finantza-egoerak arrazoizko segurtasuna lortu duen ala ez ondorioztatuko du.

Dagozkion auditoretza probak burutu ondoren, Indaux S.Aren urteko kontuen informazio ekonomiko-finantzarioa alderdi esanguratsu guztietan fidagarria dela ondorioztatu da, beraz, horiei buruzko iritzia emateko ebidentzia egokia lortu da.

Bestalde, NIA-ES 450<sup>11</sup>ak dioenez, auditoreek urteko kontuek izan ditzaketen akats garrantzitsuak identifikatu behar dituzte. Hori horrela izanik, Indaux S.Aren finantza egoeretan antzemandako okerrak ez dutela akats larririk eragiten ondorioztatu da eta, beraz, ez dute eragin nabarmenik urteko kontuen fidagarritasunean. Gainera, Indaux S.Ak, Gayca Auditores E.M.S proposatutako kontabilitate idazpen guztiak onartu ditu. Hori dela eta, auditoretza txostenaren iritzia aldekoa izan da (IX.eranskina).

---

<sup>10</sup> NIA-ES 700: “Formación de la opinión y emisión del informe de auditoría sobre los estados financieros”.

<sup>11</sup> NIA-ES 450: “Evaluación de las incorrecciones identificadas durante la realización de la auditoría”.

## 6.ONDORIOAK

Proiektu hau gauzatzearen helburu nagusia enpresa baten, kasu honetan Indaux S.Aren, auditoretza prozesua eta auditorearen lana ezagutzea izan da eta, Gradu Amaierako Lan honen bitartez, helburu hori betetzea lortu dut. Horretarako, auditore paperean sartu behar izan dut egin beharreko zeregin guztiak burutzeko. Era horretara, Indaux S.Aren urteko kontuak aplikatu beharreko finantza informazioaren arabera eginak daudela ondorioztatu ahal izan dut.

Auditoretza gai ezberdin asko kontuan hartzen dituen prozesu konplexua da. Nire kasuan, Gradu Amaierako Lan honen bitartez ezin izan ditut auditoretza prozesu batek kontuan hartzen dituen puntu guztiak landu, izan ere, aukeraketa bat egin behar izan dut nire ustez Indaux S.Aren kasuan garrantzitsuenak diren eremuen artean. Eremu esanguratsu horiek, izakinenak, diruzaintzarenak, bezeroenak eta ondare garbiarenak izan dira, izan ere, analisi ekonomiko-finantzarioaren bitartez, balantzean aldagai horiek direla garrantzia handiena dutenak ondorioztatu dut.

Bestalde, modu hurbilagoan ikasi ditut auditoretzaren prozesuak, baita auditoretza txostena igortzeko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen ere. Gainera, Gradu Amaierako Lan honek, Indaux S.Ari buruzko informazio gehiago izateko aukera eman dit, era horretara, herrian hain garrantzitsua den sozietateari buruz ezagutza gehiago izanez. Izan ere, analisi ekonomiko-finantzarioa egin ondoren, Indaux S.A egoera onean dagoela egiaztatu dut. Hain zuzen ere, azken urtean, irabaziak izan dituela egiaztatu ahal izan dut galdu-irabazien kontuaren azterketarekin. Bestalde, sozietatea epe laburrera eta luzera kaudimenduna dela eta bere zorrei aurre egiteko gai dela ikusi dut. Horrez gain, Covid 19ak ez du eragin esaguratsurik izan sozietatearengan, izan ere, 2019ko ekitaldiko emaitza negatiboa izan zen eta, 2020an eta 2021ean, hau da, pandemia garaian, berriz, positiboa.

Azkenik, Gradu Amaierako Lan honek graduan zehar ikasitako edukiak islatzeko aukera eman dit. Hain zuzen ere, Kontuen Auditoretza eta Kontabilitate Analisia ikasgaien bitartez Indaux S.Aren analisisian eta auditoretzan murgiltzeko aukera izan dut, era horretara, auditoretza munduan gehiago sartzeko eta gai horri buruz gehiago ikasteko gogoia jarritz.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Aldazabal, M., & Zubiaurre, M. A. (2019). *Kontabilitate Analisia*. UPV/EHU.
- Carolina.Moncayo. (s. f.). *Así se compone un equipo de auditoría – Instituto Nacional de Contadores Públicos de Colombia*. Web orria:  
<https://incp.org.co/asi-se-compone-equipo-auditoria/>
- *¿Cómo identificar los factores de riesgo inherente en una auditoría de estados financieros?* (s. f.). Web orria:  
<https://www.auditool.org/blog/auditoria-externa/como-identificar-los-factores-de-riesgo-inherente-en-una-auditoria-de-estados-financieros#:~:text=El%20riesgo%20inherente%20es%20la,cuenta%20los%20posibles%20controles%20correspondientes>
- De La Cigoña, J. R. F. (2023). *¿Cuándo debe someterse una empresa a una auditoría? Sage Advice España*. Web orria:  
<https://www.sage.com/es-es/blog/cuando-debe-someterse-una-empresa-a-una-auditoria/#:~:text=Por%20lo%20general%2C%20una%20empresa,50%20trabajadores%20durante%20el%20ejercicio>.
- *El grupo - Indaux. (s. f.). El grupo - Indaux*. Web orria:  
<https://www.indaux.com/es/quienes-somos/grupo-indaux.html>
- Gayca Asesores Auditores. (2023, 2 mayo). *Hasiera - Gayca Asesores Auditores*. Web orria:  
<https://gayca.com/eu/inicio/>
- Grueso, S., & Grueso, S. (2023). *Tipos de riesgos de auditoría: inherentes, de control y de detección. Actualícese |*. Web orria:  
<https://actualicese.com/tipos-de-riesgo-de-auditoria-inherentes-de-control-y-de-deteccion/>
- *Historia - URKABE - URKABE. (2018, 4 mayo). URKABE*. Web orria :  
<http://www.orkabe.es/orkabe-es-de-aqui-es-bueno/historia/>
- Holded. (2022). *Qué es la conciliación bancaria y cómo se hace. Holded*. Web orria:  
[https://www.holded.com/es/blog/conciliacion-bancaria?utm\\_adgroupid=149205955672&utm\\_keyword=&campaignid=20077725085&adgroupid=149205955672&adid=528152939445&hld\\_device=c&hld\\_network=g&hld\\_matchtype=&utm\\_source=google&utm\\_medium=pc&utm\\_campaign=dsa\\_20077725085&utm\\_term=&utm\\_content=149205955672\\_528152939445&hsa\\_src=g&hsa\\_kw=&hsa\\_mt=&hsa\\_acc=7276020979&hsa\\_grp=149205955672&hsa\\_ad=528152939445&hsa\\_cam=20077725085&hsa\\_tgt=dsa-1323978449428&hsa\\_net=adwords&hsa\\_ver=3&gclid=CjwKCAjwkeqkBhAnEiwA5U-uM-4lFBfj3Fb3iAeuwBRsgp0GoKa\\_DkgAwKB1T-nbykwq3uJrUD2HBoCWH8QAvD\\_BwE](https://www.holded.com/es/blog/conciliacion-bancaria?utm_adgroupid=149205955672&utm_keyword=&campaignid=20077725085&adgroupid=149205955672&adid=528152939445&hld_device=c&hld_network=g&hld_matchtype=&utm_source=google&utm_medium=pc&utm_campaign=dsa_20077725085&utm_term=&utm_content=149205955672_528152939445&hsa_src=g&hsa_kw=&hsa_mt=&hsa_acc=7276020979&hsa_grp=149205955672&hsa_ad=528152939445&hsa_cam=20077725085&hsa_tgt=dsa-1323978449428&hsa_net=adwords&hsa_ver=3&gclid=CjwKCAjwkeqkBhAnEiwA5U-uM-4lFBfj3Fb3iAeuwBRsgp0GoKa_DkgAwKB1T-nbykwq3uJrUD2HBoCWH8QAvD_BwE)
- IGAE (2021). *Guía de ayuda para elaborar la descripción del sistema de control*. Web orria:  
<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/Control/CFPyAP/Documents/180219%20GU%20C3%8DA%20DESCRIPCION%20Y%20EVALUACION%20C3%93N%20C3%93N%20C3%93N%20TDA.pdf>
- *Indaux en el mundo - Indaux. (s. f.). Indaux en el mundo - Indaux*. Web orria:  
<https://www.indaux.com/es/quienes-somos/en-el-mundo.html>

- *Indaux presentación corporativa.* (s. f.). *Web orria:*  
<https://www.indaux.com/themes/indaux/files/indauxpresentacioncorporativa-eus.pdf>
- Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España. (2006). Cuestionario de evaluación y aceptación de clientes. *Web orria:*  
[https://www.icjce.es/pdf/DOC\\_C1-03\\_Cuestionario\\_de%20aceptacion-AT1.pdf](https://www.icjce.es/pdf/DOC_C1-03_Cuestionario_de%20aceptacion-AT1.pdf)
- Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España. (2006): Guía de honorarios profesionales recomendados. *Web orria:*  
<https://www.icjce.es/images/pdfs/TECNICA/A1%20-%20Auditor%C3%83%C2%ADa/A108%20-%20Circ%20y%20gu%C3%83%C2%ADas%20ICJCE/Gu%C3%83%C2%ADa%20HPR-ICJCE-%202006.pdf>
- Itziar Irigoyen Azkue (2020). Kontuen Auditoretza. UPV/EHU.
- Mora, E. (2019). Una propuesta metodológica para establecer niveles de materialidad en respuesta a los riesgos de errores importantes en los estados financieros. *TEC empresarial*, 13(1), 35-52. *Web orria:*  
[https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1659-33592019000100035#:~:text=El%20riesgo%20de%20incorrecci%C3%B3n%20material,y%20el%20riesgo%20de%20control](https://www.scielo.sa.cr/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1659-33592019000100035#:~:text=El%20riesgo%20de%20incorrecci%C3%B3n%20material,y%20el%20riesgo%20de%20control)
- *NORMA TÉCNICA DE AUDITORÍA SOBRE «EVIDENCIA DE AUDITORÍA. CONSIDERACIONES ADICIONALES EN DETERMINADAS ÁREAS.* (2003, 19 septiembre). *Web orria:*  
[https://www.hacienda.gob.es/DocLeyes/cgpi\\_gasto\\_estatal/5101.html](https://www.hacienda.gob.es/DocLeyes/cgpi_gasto_estatal/5101.html)
- *Okin.* (s. f.). *Información sobre Okin.* *Web orria:*  
<https://www.okin.es/sobre-okin#:~:text=Fundada%20en%201994%2C%20OKIN%2C%20%2D,nos%20mantenemos%20fieles%20al%20pan>
- Ortega, C. (2023). Cuestionario de control interno: Qué es y cómo implementarlo. *QuestionPro.* *Web orria:*  
<https://www.questionpro.com/blog/es/cuestionario-de-control-interno/>
- PlantillasPyme. (2021, 27 diciembre). Reservas, qué son y qué tipos existen. *PlantillasPyme.* *Web orria:*  
<https://www.plantillaspyme.com/blog-pymes/finanzas-y-contabilidad/reservas-que-son-y-que-tipos-existen>
- *Procedimientos generales de auditoria en el área de clientes.* (2020, 10 noviembre). AOB Auditores | Auditores de Cuentas. *Web orria:*  
<https://aobauditores.com/terminos-auditoria/auditores-area-cliente-procedimientos-auditoria/>
- *¿Qué es el riesgo de control en una auditoría de información financiera?* (s. f.). *Web orria:*  
<https://www.auditool.org/blog/auditoria-externa/que-es-el-riesgo-de-control-en-una-auditoria-de-informacion-financiera#:~:text=El%20riesgo%20de%20control%20es,contabilidad%20y%20de%20control%20interno.>

- *¿Qué es el riesgo, riesgo inherente y riesgo residual?* (2014, 18 noviembre). Web orria: <https://www.auditool.org/blog/control-interno/que-es-el-riesgo-riesgo-inherente-y-riesgo-residual>
- *Quienes somos - Elaboración de platos precocinados.* (2021, 2 diciembre). *Elaboración de platos precocinados.* Web orria: <https://benetan.es/empresa/>
- *Spa eInforma. Información Playa Gaztetape SL (s. f.).* Web orria: [https://www.einforma.com/rapp/ficha-empresa?id=yuk37\\_YA8F8M9GIF\\_GfDpO&\\_ =1675939405871](https://www.einforma.com/rapp/ficha-empresa?id=yuk37_YA8F8M9GIF_GfDpO&_ =1675939405871)
- *uDocz. (2023). Cuestionario de control interno efectivo y equivalente.* *uDocz.* Web orria: <https://www.udocz.com/apuntes/341565/cuestionario-de-control-interno-efectivo-y-equivalente>

## **I.ERANSKINA: MANDATU-AKORDIO EDO AGINDU GUTUNA**

Industrias Auxiliares S.A erakundea.

Getarian, 2021eko urria(r)en 4a

### **Administrazio Organoari zuzendua**

Jaun/andere agurgarriak:

### **Auditoriaren helburua eta eremua (irismena)**

Industrias Auxiliares S.A enpresaren Urteko Kontuak ikuskatzeko eskatu digute, balantzeaz, galdu-irabazien kontuaz, ondaren garbiaren aldaketen egoera-orriaz, diru-fluxuen egoera orria eta memoriaz osatuta daudenak.

Ikuskaritza osatutakoan, gure txostena igorriko dugu, bertan, Urteko Kontuen inguruko gure iritzi teknikoa agertuko delarik.

Gure txostenak, ikuskaritzaren araudi nazionalan adierazten den bezala, "Bestelako Informazioa"izeneko atal bat izango du. Bertan, erakundeak Urteko Kontuekin batera aurkeztu behar duen Kudeaketa Txostena azalduko da, eta, horrez gain, txosten honen inguruko gure ondorioa ere bai, bere eduki eta aurkezpena egokiak diren eta Kudeaketa Txostena eta Urteko Kontuetako informazioak bat datozen ondorioztatuko dena.

### **Auditoreen erantzukizunak**

Gure lana egingo dugu indarrean dauden legezko neurrien arabera, hala nola, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak (ICAC) argitaratzen dituen ikuskaritza arauen (NIA-ES) eta arau tekniko gehigarrien arabera. Aipatutako arauak eskatzen dute independente izan gaitezela eta gure ikuskaritza loturiko bestelako eskakizun etikoak bete ditzagula.

Gure ikuskaritzaren helburua Urteko Kontuek oker materialik ez dutelako segurtasun zentzudun bat lortzea eta gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza txosten bat igortzea da. Aurrera eramango dugun lan honetan zehar, gure zentzu profesionala aplikatuko dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrera bat mantenduko dugu.

Iruzurra egon delako edo arauak hautsi direlako ebidentzia dagoela erabakitzen badugu, Zuzendaritzari jakinaraziko diogu modu egokian. Barne-kontrollean identifikatutako edozein huts idatziz komunikatuko dugu.

### **Administratzaileen erantzukizun eta aitorpenak**

Ikuskaritza prozesua aurrera eramango dugu, kontuan izanik administrazio organoak onartzen eta ulertzen duelarik ondorengo erantzunle direla:

a) Urteko Kontuen formulazio egokia, enpresaren irudi zuhurra ordezkatzeko dutena eta aplikagarri den informazio finantzarioen alor arauemailearekin bat datozeala, zuek eskainitako informazioaren arabera ondorengo dena:

- Merkataritza Kodea
- Kontabilitate plan orokorra
- Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako eta nahitaez bete beharreko arauak.
- Aplikagarriak diren bestelako arau kontable nazionalak.

b) Kudeaketa Txostenaren formulazio egokia, erakundeari dagozkion eta indarrean dauden araudien arabera.

c) Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrol maila, Urteko Kontuak okerrik gabe formulatuak izan daitezen.

d) Ondorengo informazioa eskaintzea guri:

- Egoera finantzarioak prestatzeko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duen eta ezagutzen duen informazio guztia.

- Ikuskariak eska dezakeen informazio gehigarria.

- Ikuskariak ebidentzia lortu ahal izateko kontaktatu nahi duen erakundeko edozein pertsonarenganako irismen mugagabea.

### **Txostenak eta entrega-epeak**

Auditoria-txostenen egitura eta edukiak Ikuskaritzaren araudi erregulatuarekin daude adierazita, zehazki, NIA-ES 700 eta 701n. Aipaturako arauen erabera, txosten hauen edukia aldatua izan daiteke hala galdatzen duten egoera eta zirkunstatzietan.

Industrias Auxiliares S.A enpresak aurrerapen nahikoarekin jakinaraziko digu Urteko Kontuak onartuko diren Batzar Orokorraren data zein den. Halaber, guk, txostenaren igorpenean atzerapen bat eragin dezaken edozein zirkunstatzientziaren berri emangi diogu Industrias Auxiliares S.A erakundeari.

Sinatuta:

*GARAZI EIZAGIRRE*

(Bazkide auditorea)

*VICTORIA MARTIN*

(Administrazio Kontseiluko kidea)

## **II. ERANSKINA: AUDITOREAREN INDEPENDENTZIAREN AITORPEN GUTUNA**

Auditatutako enpresa: Industrias Auxiliares S.A

Auditatutako ekitaldia: 2021

Bazkide auditorea: Garazi Eizagirre

Gayca Auditores SL-ren lan-taldeko kide bezala jarduten dugunok, eta Industrias Auxiliares S.A erakundearen 2021n itxitako ekitaldiaren Urteko Kontuen Auditoria lanarekiko dugun independentzia betebeharren inguruan, ondorengo aitortzen dugu:

1. Kontu-auditoretzari buruzko Uztailaren 20ko 22/2015 Legeko independentzia errekerimenduei buruzko legezko araudia ezagutzen eta ulertzen dugula, enpresak Barne Kalitate Kontrolaren Sistemari, aipatutako independentzia errekerimenduen inguruan, ezarritako politika eta prozedurak ezagutu eta onartzen ditugu.
2. Industrias Auxiliares S.A enpresari esleitu zaion mandatu hau Ikuskatutako Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela, non bezeroaren datu partikularrak, bere lotura posibleak eta beste hainbat baldintza aipatutako erregistroan agertzen direla eta horien inguruan behar bezala jakinarazi gaituztela.
3. Egoera pertsonaletatik eratorritako bateraezintasun kasuen inguruan:
  - a) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ikuskatutako erakundearen ondorengo egoeretakoa batean parte hartu:
    - Administrazio organoko kidea izatea.
    - Zuzendaria izatea.
    - Erakundearen botere orokor bat duen ahalduna izatea.
    - Lanpostu batean jardutea.
    - Egoera ekonomiko – finantzarioaren arduraduna izatea.
    - Barne-kontrol edo gainbegiratze funtziorik ez betetzea.
  - b) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ikuskatutako erakundearen baliabide finantzarioekin jardun.
  - c) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ikuskatutako erakundearen edo bere taldeko erakunde baten aldetik mesede edo oparirik onartu.
  - d) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ezagutzarik nire gertuko familiako kideren bat ikuskatutako enpresari administrazio organoko kide edo egoera ekonomiko-finantzarioaren arduradun denik.
  - e) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ezagutzarik nire gertuko familiako kideren batek ikuskatutako erakundearen baliabide finantzarioekin jardun duenik.
  - f) 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ezagutzarik nire gertuko familiako kideren batek ikuskatutako erakundearen edo bere taldeko erakunde baten aldetik mesede edo oparirik onartu duenik.
4. Zerbitzu emateagatik bateraezintasunen kausen inguruan, 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez diodala ikuskatutako erakundeari ondorengo zerbitzuetako bat eskaini:



- a) Kontabilitate zerbitzuak edo egoera finantzarioen prestakuntza zerbitzuak.
  - b) Baloraketa zerbitzuak.
  - c) Barne-ikuskaritza zerbitzuak.
  - d) Abokatutza zerbitzuak.
  - e) Egoera finantzarioak eratzeko informazioa sortzeko prozesuetan zerbitzuak.
  - f) Aurreko zerbitzuez gain, bateraezintasuna sortzen duen beste edozein zerbitzu.
5. 2021eko ekitaldiaren aurreko lehenengo urtearen hasieratik, ez dudala ezagutzarik nire gertuko familiako kideren baten ikuskatutako erakkundeari aurreko puntuan esandako zerbitzurik eskaini.
  6. Bazkidearengandik jasotako informazioari lotutako konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren inguruan dugun konpromisoa onartzen dugula.
  7. Halaber, ondorengo aitortzen dut:
    - Aitorpen honen edukia aldatzen duen edo independentzia jarrera haustea suposatzen duen zirkunstantziaren bat gertatuz gero ikuskaritza sinatzen duen auditoreari jakinaraziko diot.
    - Aitorpen honetan jasotzen diren politika guztiak betetzea nire ardura dela onartzen dut.
    - Ulertzen dut nire erantzunak ikuskaritza enpresak bere independentzia betebeharra ebaluatu ahal izateko funtsezko elementuak direla.

Sinatua: Getarian, 2021eko urria(r)en 4(a)n

### **III. ERANSKINA: BANKU ZIRKULARIZAZIOA**

Indaux - Industrias Auxiliaren S.A  
San Prudentzio industrialdea  
Getaria, 20808  
Telf: 943 140 300

Labora Kutxa Getaria  
Herrerrieta kalea 4  
Getaria, 20808

Jaun-andre agurgarriok:

2021eko abenduaren 31an amaitutako ekitaldiaren urteko kontuen auditoria egiteko, Gayca Auditores E.M.Sri, jarraian eskatzen den informazioa helaraztea biziki eskertuko genizueke.

Jarraian agertzen den punturen batea “bat ere ez” jarri beharko bazenute, horrelaxe adieraztea erregutzen dizuegu, geroko nahigabe posibleak saihesteko.

Zuen erantzuna sinatuta eta zuzenean gure ikuskariei bidaltzea eskatzen dizuegu:

Gayca Auditores E.M.S

e-mail: [l.aldalur@gaycaauditores.es](mailto:l.aldalur@gaycaauditores.es)

Zuen lankidetzat aldeztu aurretik eskertu nahirik, gure agurra luzatzen dizuegu.  
Adeitasunez,

#### **BANKUKO BERRESPEN GALDETEGIA**

Erantsitako datuak eurotan daudela ulertuko da beste moneta bat berariaz aipatu ezean.

1. Eragiketa hartzekodunak eta zorpekoak kontu korrontean:
2. Emandako finantzapena:
  - a. Mailegu eta Kredituak:
3. Banketxearen aurreko bestelako konpromezu edo erantzunkizunak (abalak, asmo - eskutitzak eta aipaturiko erakundeak hirugarrenei mailegatutako bermetasunak, e. a.) ondoren zehazten dira:
4. 2021eko abenduaren 31.etik gaur artean eragiketa berriztatu edo emanak:
5. Kontu honetan (hauetan) eragiketarako egiteko baimena duten sinaduren titularrak honako hauek dira: (bakoitzakoak, elkartuak, e. a. ote diren zehaztu)
6. Aipatutako data egunean zure ustez erakundearen egoera finantzarian eragina izan dezakeen bestelako edozein informazio:

Adeitasunez,

#### **IV. ERANSKINA: BEZEROEN ZIRKULARIZAZIOA**

Indaux - Industrias Auxiliaren S.A

San Prudentzio industrialdea

Getaria, 20808

Telf: 943 140 300

Leroy Merlin

Jaun-andre agurgarriok:

Gure auditoreak, Gayca Auditores E.M.S-k, 2021eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldiko gure kontuak berrikusten ari dira. Hori dela eta, auditore horiek, ondorengo informazioaren inguruko zuen adostasuna edo desadostasuna eman dezazuen nahi dugu:

Gure liburuaren arabera, 2021eko abenduaren 31n zuen kontuaren zenbatekoa, 347.247,01€-koa da. Zenbateko horren zehaztapena atxikitzen da jarraian.

Mesedez, gutun hau bera erabiliz goian azalduko informazioarekiko zuen adostasuna edo desadostasuna adierazi, jarraian agertzen den bezeroaren kontuaren kopian. Goian adierazitako zenbatekoarekin ados ez zaudeten kasuan, gehitu zuen zenbatekoaren zehaztapena edo ezberdintasunak aurkitzeko baliogarri zaien beste edozein informazio.

Mesedez, gure auditoreei zuen erantzuna lehenbailen eta zuzenean bidaltzea eskatzen dizuegu:

Gayca Auditores E.M.S

e-mail: [l.aldalur@gaycaauditores.es](mailto:l.aldalur@gaycaauditores.es)

Bezeroen kontua:

<b>Data</b>	<b>Faktura zenbakia</b>	<b>Muga eguna</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2021/10/31	20210321	2021/12/20	181,50
2021/10/31	20210322	2021/12/20	5.089,26
2021/10/31	20210323	2021/12/20	1.781,12
2021/11/20	20210330	2022/01/20	9.663,06
2021/11/20	20210331	2022/01/20	2.075,15
2021/11/20	20210332	2022/01/20	544,50

2021/10/20	20210334	2021/12/20	1.805,32
2021/10/20	20210335	2021/12/20	1.142,24
2021/10/20	20210337	2021/12/20	4.216,85
2021/10/31	20210338	2021/12/20	4.216,85
2021/10/20	20210339	2021/12/20	15.761,46
2021/10/20	20210340	2021/12/20	3.649,36
2021/10/20	20210341	2021/12/20	12.516,24
2021/10/20	20210342	2021/12/20	2.672,89
2021/10/20	20210343	2021/12/20	11.812,02
2021/10/20	20210344	2021/12/20	14.638,58
2021/10/20	20210345	2021/12/20	12.644,50
2021/10/20	20210346	2021/12/20	4.795,23
2021/10/20	20210347	2021/12/20	5.557,53
2021/10/31	20210348	2021/12/20	10.507,64
2021/10/31	20210349	2021/12/20	4.172,08
2021/10/31	20210350	2021/12/20	2.102,98
2021/11/20	20210356	2022/01/20	5.176,38

2021/11/20	20210357	2022/01/20	1.543,96
2021/11/20	20210358	2022/01/20	15.761,46
2021/11/20	20210359	2022/01/20	2.086,04
2021/11/20	20210360	2022/01/20	3.112,12
2021/11/20	20210361	2022/01/20	3.475,12
2021/11/20	20210362	2022/01/20	15.749,36
2021/11/20	20210363	2022/01/20	11.054,56
2021/11/20	20210364	2022/01/20	7.319,29
2021/11/20	20210365	2022/01/20	3.968,80
2021/11/20	20210366	2022/01/20	10.115,60
2021/11/30	20210372	2022/01/20	10.352,76
2021/11/30	20210373	2022/01/20	3.009,27
2021/11/30	20210374	2022/01/20	1.235,41
2021/11/30	20210375	2022/01/20	5.970,14
2021/11/30	20210376	2022/01/20	18.388,37
2021/12/20	20210385	2022/02/20	11.577,28
2021/12/20	20210386	2022/02/20	1.543,96

2021/12/20	20210387	2022/02/20	28.896,01
2021/12/20	20210388	2022/02/20	4.475,79
2021/12/20	20210389	2022/02/20	9.590,46
2021/12/20	20210390	2022/02/20	10.115,60
2021/12/20	20210391	2022/02/20	6.308,94
2021/12/20	20210392	2022/02/20	1.817,42
2021/12/23	20210400	2022/02/20	7.880,73
2021/12/23	20210401	2022/02/20	5.527,28
2021/12/23	20210402	2022/02/20	72,60
2021/12/23	20210403	2022/02/20	145,20
2021/12/23	20210404	2022/02/20	2.528,90
2021/12/23	20210405	2022/02/20	399,30
2021/12/23	20210406	2022/02/20	2.588,19
2021/12/23	20210407	2022/02/20	1.436,27
2021/12/23	20210408	2022/02/20	2.478,08

Besterik gabe, eta aldez aurretik zuen arreta eskertuz, agurtzen zaituztegu.

Adeitasunez,

## V.ERANSKINA: AUDITOREAK PROPOSATUTAKO IDAZPENAK

<u>Zk</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>ZOR</u>	<u>HARTZEKO</u>	<u>Eremua</u>
1	(330) Bideango produktuak (710) Bideango produktuen aldakuntza	125.000	125.000	Izakinak
2	(350) Produktu bukatuak (712) Produktu bukatuen aldakuntza	150.000	150.000	Izakinak
3	(601) Lehengaien erosketa (472) Ogasun Publikoa, jasadako BEZa (400) Hornitzaileak	100.000 21.000	121.000	Izakinak
4	(601) Lehengaien erosketa (472) Ogasun Publikoa, jasadako BEZa (400) Hornitzaileak	54.450	45.000 9.450	Izakinak
5	(701) Produktu bukatuen salmenta (477) Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa (430) Bezeroak	45.375	37.500 7.875	Izakinak
6	(701) Produktu bukatuen salmenta (477) Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa (430) Bezeroak	75.000 15.750	90.750	Izakinak
7	(350) Produktu bukatuak (712) Produktu bukatuen aldakuntza	10.000	10.000	Izakinak
8	(740) Ustiapenerako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak (572) Bankua	100.000	100.000	Bankuak
9	(701) Produktu bukatuen salmenta (477) Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa (430) Bezeroak	4.350 913,5	5.263,5	Bankuak
10	(430.01) Leroy Merlin bezeroa (430.02) Argi E.M.S be+zeroa	27.338,28	27.338,28	Bezeroak

BEZaren likidazioa:

(472) Ogasun Publikoa, jasadandako  
BEZa

(3.idazp.) 21.000	9.450 (4.idazp.)
	Hartzeko → 11.550

(477) Ogasun Publikoa,  
jasanarazitako BEZa

(6.idazp.) 15.750	7.875 (5.idazp.)
(9.idazp.) 913,5	
	Hartzeko → 8.788,5

(475) Ogasun Publiko hartzekoduna → (11.550 + 8.788,5) = 20.338,5

**VI.ERANSKINA: AUDITOREAK PROPOSATUTAKO IDAZPENEN LABURPENA**

	AKTIBO KORRONTEA						ONDARE GARBIA	PASIBO KORRONTEA
	Izakinak			Zordun komertzialak		Diruzaintza		Hartzekodun komertzialak
	Lehengaiak	Bideango produktuak	Produktu bukatuak	Bezeroak	Zordunak	Diruzaintza	G-I	Hornitzaileak
<b>Saldoa E/A</b>	<b>2.419.000,36</b>	<b>5.889.443,17</b>	<b>6.359.075,78</b>	<b>13.311.452,47</b>	<b>1.761,69</b>	<b>7.363.511,59</b>	<b>577.870,22</b>	<b>11.430.925,63</b>
1.idazpena		-125.000					-125.000	
2.idazpena			-150.000				-150.000	
3.idazpena							-100.000	121.000
4.idazpena							45.000	-54.450
5.idazpena				45.475			37.500	
6.idazpena				-90.750			-75.000	
7.idazpena			10.000				10.000	
8.idazpena						100.000	100.000	
9.idazpena				-5.263,5			-4.350	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.419.000,36</b>	<b>5.764.443,17</b>	<b>6.219.075,78</b>	<b>13.260.913,97</b>	<b>1.761,69</b>	<b>7.463.511,59</b>	<b>316.020,22</b>	<b>11.497.475,63</b>



## VII.ERANSKINA: 2021EKO EKITALDIAREN BALANTZE DOITUA

2021EKO EKITALDIAREN BALANTZEA		
AKTIBOA	Saldoa E/A	Saldoa A/A
AKTIBO EZ-KORRONTEA	19.469.016,37	19.469.016,37
<b>1.Ibilgetu ukiezina</b> <b>2.Ibilgetu materiala</b> <b>4.Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak</b> <b>5. Epe luzeko finantza inbertsioak</b> <b>6.Zerga geroratuuen aktiboak</b>	<b>450.696,06</b> <b>12.861.204,64</b> <b>678.461,84</b> <b>74.197,30</b> <b>5.404.456,53</b>	<b>450.696,06</b> <b>12.861.204,64</b> <b>678.461,84</b> <b>74.197,30</b> <b>5.404.456,53</b>
AKTIBO KORRONTEA	44.107.107,78	43.891.469,28
<b>2.Izakinak</b> - Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak - Bideango produktuak - Produktu bukatuak - Hornitzaileei aurrerakinak <b>3.Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b> - Bezeroak - Hainbat zordun - Administrazio Publikoekiko bestelako hartzeoak <b>4.Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe laburreko inbertsioak</b> <b>5.Epe laburreko finantza inbertsioak</b> <b>6. Epe laburreko aldizkapenak</b> <b>7.Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b> - Diruzaintza	<b>14.668.094,02</b> 2.419.000,36 5.889.443,17 6.359.075,78 574,71 <b>13.786.930,01</b> 13.311.452,47 1.761,69 473.715,85 <b>8.176.711,74</b> <b>717,34</b> <b>111.143,08</b> <b>7.363.511,59</b> 7.363.511,59	<b>14.403.094,02</b> 2.419.000,36 5.764.443,17 6.219.075,78 574,71 <b>13.736.291,51</b> 13.260.813,97 1.761,69 473.715,85 <b>8.176.711,74</b> <b>717,34</b> <b>111.143,08</b> <b>7.463.511,59</b> 7.463.511,59
AKTIBOA GUZTIRA	<b>63.576.124,15</b>	<b>63.360.485,65</b>

2021EKO EKITALDIAREN BALANTZEA		
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Saldoa E/A	Saldoa A/A
ONDARE GARBIA	38.091.518,18	37.829,668,18
<b>A-1) Fondo propioak</b>	<b>38.030.058,33</b>	<b>37.768.208,33</b>
- Kapitala	1.334.220,00	1.334.220,00
- Erreserbak	34.617.968,11	34.617.968,11
- Bazkideen bestelako ekarpenak	1.500.000,00	1.500.000,00
- Ekitaldiko emaitza	577.870,22	316.020,22
<b>A-3) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>61.459,85</b>	<b>61.459,85</b>
PASIBO EZ-KORRONTEA	10.128.029,99	10.128.029,99
<b>2.Epe luzeko zorrak</b>	<b>10.108.621,59</b>	<b>10.108.621,59</b>
<b>4.Zerga geroratuuen pasiboak</b>	<b>19.408,40</b>	<b>19.408,40</b>
PASIBO KORRONTEA	15.356.575,98	15.402.787,48
<b>3.Epe laburreko zorrak</b>	<b>2.028.477,79</b>	<b>2.028.477,79</b>
<b>4.Taldeko enprekin eta elkartuekin epe laburreko zorrak</b>	<b>855.167,11</b>	<b>855.167,11</b>
<b>5.Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>12.469.930,74</b>	<b>12.533.719,24</b>
- Hornitzaileak	11.430.925,63	11.497.475,63
- Pertsonala	282.626,71	282.626,71
- Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	608.574,40	588.235,90
- Bezeroak emandako aurrerakinak	147.804,00	147.804,00
<b>- 6.Epe laburreko aldizkapenak</b>	<b>3.000,34</b>	<b>3.000,34</b>
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	<b>63.576.124,15</b>	<b>63.360.485,65</b>

## **VIII.ERANSKINA: AITORPEN GUTUNA**

Gayca Auditores E.M.S

Getaria, 2023ko otsailaren 8

Jaun-andre agurgarriak,

Indaux S.A sozietatearen 2021ean amaitutako ekitaldiko urteko kontuei buruz egiten ari zareten auditoretzari dagokionez, gure jakintza eta ulermen leialaren arabera, honako hau adierazten dizuegu:

1. Erakundeko Administrazio Kontseiluko kideak gara urteko kontuak indarrean dagoen araudiaren arabera eta dagozkion epeetan egitearen arduradunak.
2. Urteko kontuak erakundearen kontabilitate erregistrotik lortu dira. Kontu horiek sozietatearen transakzio guztiak islatzen dituzte, baita aktibo eta pasibo guztiak ere. Era horretara, bere ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela erakusten dute, baita gauzatutako eragiketen emaitzena eta diru fluxuena ere.
3. Kontabilitate erregistroetara, kontratueta, akordioetara, dokumentazio osagarrietara eta eskatutako informaziora sarbidea eman dugu. Administrazio Kontseiluaren eta Akziodunen Batzarren akta guztiak eman dizkizuegu. Horrez gain, kontseiluko idazkariak prestatutako zerrenda.
4. Urteko kontuetan eragin nabarmena izan lezaketen kontratu eta lege baldintza guztiak betetzen ditugula uste dugu. Ez dugu sozietateari aplikatu beharreko legezko araudi edo xedapenak betetzen ez direnaren ebidentziarik.
5. Erakundearen barne eta kontabilitate kontrolako sistemak disenatzeaz, ezartzeaz eta mantentzeaz arduratzen gara, era horretara, akatsak ahalik eta lasterren aurreikusteko eta antzemateko.
6. Zuzendaritzako kideek edo erakundeko langileek barne kontrolako eta kontabilitateko sistemetan izandako esku hartzeagatik sortu diren edo sor daitezken irregulartasunen berririk. Era berean, ez da irregulartasunik antzeman erakundeko beste langile batzuk urteko kontuetan eragin materiala izan dutenik..
7. Ekitaldi itxiera-datako konpromiso, kontingentzia eta erantzukizun bakarrak Urteko Kontuetan jasotakoak dira.
8. Sozietateak ez du urteko kontuetan kontabilizatutako aktibo eta pasibo elementuen balioa edo sailkapena alda dezaken planik.
9. Urteko Kontuak itxi zirenetik gutun honen egunera arte, ez da inolako gertaerarik gertatu, eta ez da Urteko Kontuetan eragin nabarmena izan dezakeen alderdirik agertu.
10. Sozietateak ez du kaleratzerik egiteko asmorik eta horren ondorioz ordaindu beharreko kalte-ordainak ordaindu beharrik. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen hornidura gehigarriak egitea.
11. Erakundeak kontabilizatutako ondasun aktibo guztientzat jabetzaren titulu egokia du. Ondasun horiek ez dute kargarik, ezta hipotekarik ere.
12. Ibilgetu materialaren kontuetako saldoek ez dute baja eman zaien edo erabileratik kanpo dauden ondasunik adierazten.
13. Zergei dagokienez, honeko hau adierazten dugu:
  - a. Pasibo fiskalen hornidura egokia egin da. Bestalde, ez dugu uste irekitako ekitaldia ikuskatzean, likidazio gehigarrien zenbatekoak horniduren zenbateko nabarmen gaudituko duenik.
  - b. Aritu independenteek emandako iritzi fiskal guztiak eman dizkizuegu.
  - c. Zerga geroratuen aktiboak, etorkizunean konpentsatzeko aukera eman dezaketan irabazi fiskalak daudenean bakarrik aztertuko dira.
  - d. Aktiboen berreskurapenaren ebaluazioan kontutan hartutako zerga estrategiak zurrak eta arrazoizkoak dira.
14. Sozietateak ez du eskudiruzko saldoak edo bestelako aktibo edo pasibo finantzarioak erabiltzeko murrizketarik eragiten dion finantza erakundeekin inolako eragiketarik.

15. Erakundeak ez du pentsioengatiko edo antzeko lan-prestazioengatiko konpromisurik
16. Sozietateak hirugarrenekin egindako eragiketa guztiak modu independentean, merkatuko baldintza normaletan eta lehia askean egindakoak dira.
17. Kudeaketa txostenak indarrean dagoen legediak eskatzen duen informazio guztia jasotzen du.

Azterketa hori guztia egin ondoren, enpresak etorkizunean lanean jarraitzeko baliabide egokiak dituela uste dugu. Bestalde,

Era berean, jakinarazten dizuegu badakigula memorian jakinarazi behar dugula urteko kontuak formulatzean abian dagoen enpresaren printzipioa aplikatzeari buruzko zalantza sortzen duen edozein zirkunstantziari buruz, bai eta zalantza hori arintzen duten faktoreei buruz ere.

Urteko kontuak formulatzean funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa aplikatzeari buruzko zalantza sortzen duen edozein zirkunstantziari buruzko informazioa ematea memorian.

## **IX.ERANSKINA: AUDITORE IINDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA**

INDAUX S.A. sozietatearen akziodunei,

### **Iritzia**

Indaux S.A. (Sozietatea) urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2021eko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2021eko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretarako bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

### **Iritzia emateko oinarria**

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontu- auditoretza jardueraren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna arau horien arabera, Urteko Kontuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna atalean zehazten da.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatuzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

### **Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak**

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik eman.

### **Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena**

Bestelako informazioak 2021eko ekitaldiko kudeaketa-txostenak soilik biltzen du; berau egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudiaren arabera, hauexek dira: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea aipatutako urteko kontuen auditoretzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz eta gainerako ebidentzia ezberdinik kontuan izan gabe. Halaber, gure erantzukizuna, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea da. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2021eko ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukiak eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

### **Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna**

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokia den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean.

### **Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna**

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen urteko kontuen auditoretza jardueraren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzetatik sor daitezke, eta materializat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Auditoretza-txosten honen 1 eranskinean, urteko kontuen auditoretzan ditugun erantzukizunen deskribapen zehatzagoa ematen da. Jarraian agertzen den deskribapen hau gure auditoretza-txostenaren zati bat da.

2022ko maiatzaren 31

*GARAZI EIZAGIRRE IRIBAR*  
Nº ROAC 02.520  
**GAYCA AUDITORES, E.M.S**  
**Donostia**  
**Nº ROAC - S0470**